

hh
hik hasi

**Renato Operti UNESCOko hezkuntza
adituari elkarrizketa**
Erriberako ikasleak Errigora goratzen
Emoziorik gabe ez dago ikaskuntzarik
Nola landu dolua eskolan?
'Blogetan.eus', euskarazko blogak batera
Izaro Andres



REGGIO EMILIA

HAURRENTZAKO IRAKURGAIK



Pio martzianoa

Pello Añorga + Iñaki G. Holgado
eta Jorge Madejón

Baserrian girozutako istorio dibertigarri bat



Lapatza

Paddy Rekalde + Jokin Mitxelena

Hazten laguntzeko ikasgai bat



Printzesa eta ergela

Antxiñe Mendizabal + Mai Egurza

Enpatiarri buruzko ipuin bat

elkar

www.elkarargitaletxea.eus

AURKIBIDEA

GAIA / 10

REGGIO EMILIA

Reggio Emiliako hezkuntza-proiektua, 0 eta 6 urte artean garatzen dutena, eredugarri bilakatu da mundu osoan. Ez kasualitatez, saiatzen baitira haurra erdigunean jartzen, kalitatezko ingurunea eskaintzen, zaintza egokia ematen, harreman aberatsak eraikitzen... Urriari Euskal Herriko 65 hezitzaile izan ziren bertan Hik Hasik antolatutako bidaian. Han ikasitakoaren zati bat jasotzen da aldizkari honetan.

ELKARRIZKETA / 20

RENATO OPERTTI

Nafarroako Ikastolen Elkarteak antolaturiko Keycolab Nazioarteko Konferentzian hartu du parte Unescoko kide eta hezkuntzaren ikerketan adituak. Konpetentziek hezkuntzan duten zeregina birpentsatzea zuen helburu jardunaldiak, eta, Operttiren esanetan, konpetentziaz hausnartzearekin batera hezkuntza-sistema osoa da birpentsatu beharrekoa.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantza Muñoa.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Diarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Errion-

do, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia. **Administrazioa:** Uxue Ugartemendia. **Diseinua:** Grafik.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANtZA S.A.L. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2017-11-20). Kopurua: 3.100 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

5 EDITORIALA

Ariketa erreal bilakatzea da kontua

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Haurra subjektu politiko, eskola akuilari

20 ELKARRIZKETA RENATO OPERTTI

“Hezkuntza-sistemak ez dira interbentzio puntualen batuketaren bidez aldatzen, baizik eta ikuspegi sistemiko bat garatuz”

28 ESPERIENTZIAK

Erriberako ikasleak Errigora goratzen

32 EKARPENAK

Zer garrantzia dute emozioek ikaskuntza prozesuan?

36 GALDEIDAZU ESTER ALVAREZ

Nola landu daiteke ikasleekin doluaren gaia?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

‘Blogetan.eus’: euskarazko blog guztiak biltzen dituen ataria

42 ATZEKO ATETIK Izaro Andres

EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia



Ariketa erreal bilakatzea da kontua

editoriala

HEZKUNTZA, ESKOLA, IRAKASLE JARDUNA, BIDERKAKETAK IRAKASTEKO METODOA... HOBETZEA POSIBLE DA. EREDUAK BEHAR DIRA, ETA NAHI IZAN BEHAR DA.



8urteko bi haurren gurasoak elkarrizketan ari dira parkean. Bata kexu da, eskolatik itzuli eta haurra egunero afal aurretik biderkaketak egiten edukitzea ez zaio ariketa ikasteko modurik egokiena iruditzen. Besteak diotso gustukoa ez izanagatik, ikasiko badu ariketa abstraktua paperean egitea beste biderik ez dagoela. Eztabaidak ez du aterabide errazik, biderkaketak ikasteko modu bakarra ariketa abstraktua paperean egitea eta egitea dela uste duten gurasoek zail dute beste alternatibarik planteatzea.

Baina bada beste modurik biderkaketa-taula ikasteko eta biderkaketak egiten ikasteko. Akaso gurasoek ez, baina irakasleek jakin behar dute badela matematikak irakasteko beste modurik, idazten-irakurtzen ikasteko modu ugari dauden bezala, hizkuntzak ikasteko, geografia, historia... dena delakoa.

Eta harago, irakasleok jakin eta ezagutu behar dugu eskolak emateko ereduak ugari direla. Eskola-ereduak ugari direla. Instruktibagoak, aktibagoak, konduktistagoak, askeagoak, autonomoagoak, berdeagoak... ereduak geureaz hausnartzeko balio digute, eskola barruko geure jardunaz, klaustro mailako jardunaz, eskola mailako jardunaz, gurasoekikoaz, komunitatekoaz... onari eusteko, okerragoa dena aldatu litekeela ikusteko, eta aldatzeko urratsak nola egin ikasteko, beti ere hobetzeko. Hezkuntza hobetzeko.

Hik Hasirentzako eredu garrantzitsu bat da Reggio Emilian. Gela barruko jardunetik hasi —gelaren beraren itxura, egokiera, arkitektura, estetikaz gain gela barruko jardun pedagogikotik hasi— eta eskolara, eta komunitatera proiektu arras interesgarria da Re-

ggio Emiliakoa. Sarritan ekarri ditugu orriotara eskola horiek, eta oraingoan geu joan gara hara. Eta ikusi dugu posible dela.

Posible beste hezkuntza eredu bat. Kalitatezko hezkuntza eredu publiko bat. Beste hezkuntza publiko eredu bat. Beste autonomia eredu bat. Beste gardentasun eredu bat. Beste pedagogia eredu bat. Beste hezkuntza sistema eredu bat. Herrikoa, haurra erdigunean jartzen duena, udal kudeatua, herritarrek eskolarekin eta eskolak herritarrekin erabakia. Ikusi dugu posible dela.

Duela hamaika urte ere izan ginen Reggio Emilian. Ikusi genituen hango eskolak, ezagutu genuen hango pedagogia, hango sistema. Eta itzuli eta hausnartu genuen. Haienaz eta geureaz. Zer egin nahi dugun eta zer egin dezakegun. Eta, zer ez. Eta egin genituen hobekuntzak. Bakoitzak bere esparruan.

Hezkuntza, eskola, irakasle jarduna, biderkaketak irakasteko metodoa... hobetzea posible da. Ereduak behar dira, eta nahi izan behar da.

Eta baldintzak. Goitik datozenean baldintza hobeak, primeran. Baina goitik etortzeko, ezin da eserita itxoin. Hori ere ikasi dugu Reggio Emilian. Bigarren Mundu Gerra bukatu eta hurrengo egunean hiriko bizilagunak eskola bat eraikitzen hasi ziren.

Baina behetik gora ere ezarri daitezke hobekuntzarako baldintzak. Hezkuntza sistema aldatzen dugu gure eskola aldatzen dugun neurrian, eserita zain egon gabe. Biderketak irakasteko modua, gure gelako jarduna, gure klaustrokoa, gurasoekiko eta komunitatearekiko jarduna aldatzen ditugun neurrian. Gure esku ere badago.

Ereduak ezagutu behar ditugu, eta hausnartu eta ausartu. Ariketa erreal bilakatzea da kontua.

“Hezkidetzeta eta inklusioa badira gure hezkuntza sistemako helburu nagusiak, eskola kirolean trinko dirauten kirolen egitura hierarkikoa eta txapelketa sistemaren (ez) egokitasuna eztabaidatu beharko genuke”

Itsaso Nabaskues

Hazi Hezi

haziera eta heziketarako euskal aldizkaria



Urteko harpidetza
(lau aldizkari)
20 euro

Hik Hasi, hezkuntzari
garrantzia ematen diogunon
komunitatea

www.hikhasi.eus

HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

JARRAIPEN ZABALA ARI DA IZATEN HEZKUNTZA PUBLIKOKO LANGILEAK EGITEN ARI DIREN PROTESTA-ALDIA



Araba, Bizkai eta Gipuzkoako unibertsitetez kanpoko hezkuntza publikoaren “egoera larria” salatzeke hainbat protesta egun egin dituzte azaroan zehar bertako langileek LAB, Steilas eta ELA sindikatuek deituta. Azaroaren 9an Haurreskola partzuergoko langileak hasi ziren grebarekin eta sukaldeetako nahiz garbiketako langileek, heziketa berezikoek eta irakasleek jarraitu zieten hurrengo asteetan. Abenduaren 12rako, berriz, greba orokorra daukate deituta.

EAEko hezkuntza publikoan sindikatuek abiatutako mobilizazioak, dena den, bide luzea egiten ari dira: iazko ikasturtean hasi ziren. Hiru greba egun egin zituzten, martxoaren 22an eta maiatzaren 16an eta 24an. Kurtso berria hastearekin batera, irailean eta urrian zehar itxialdiak eta elkarretaratzeak egin zituzten ikastetxeetan, eta urriaren 28an manifestazioak egin zituzten hiriburuetan.

Gatazka askatzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak bi proposamen jarri zituen mahai gainean irailean: batetik, Lehen Hezkuntzan ordezkioak lehen egunetik jartzea; bestetik, lan deialdiak egitea, agintaldi osoan 5.000 postu eskainiz, eta hala, behin behinekotasuna apaltzea. Protestara deitu duten sindikatuentzat, ordeza, ez da nahikoa. Oraingoz, ez dute adostasunik lortu gobernuarekin, eta ez daukate negoziatzeko beste datarik: “Mobilizazioen esperoan egongo dira, zer egin erabakitzeko”. Protes-ten ondoren, berriz esertzea espero dute sindikatuek.

HEZKUNTZAKO OPOSIZIOAK 2019AN IZANGO DIRA NAFARROAN

Irakasle postua lortzeko azterketak ez dituzte datorren urtean egingo Nafarroan, baizik eta 2019an. Hezkuntzako mahai sektorialeko bilera egin dute, eta han eman du aldaketaren berri Nafarroako Gobernuak. 73 postuko lan eskaintza egitekoa du Hezkuntza Departamentuak. Sindikatu eta irakasle talde batzuek eskatua zuten aldaketa hori. Haur eta Lehen Hezkuntzako oposizioak izango dira. Beste aztergai bat ere izan dute mahai sektorialean: zerrenda bakarra. Maria Solana kontseilariak sindikatuei azaldu die “legezkoa” dela zerrenda bakarra ezartzea eta aztertzen ari direla nola kudeatu.

UMEEN ARRETA GOIZTIARRERAKO ZENTROEN SAREA SORTU DUTE BIZKAIAN

Garapen arazoak dituzten 0 eta 6 urte arteko umei arreta emateko itunpeko zentroen sare bat osatu du Bizkaiko Foru Aldundiak. 1.600 umeri emango die arreta, lurralde osoan 49 zentrotan. Sailak 3,6 milioi euroko aurrekontuarekin egingo dio aurre ume horien tratamenduak sortzen duen gastuari. 2010ean ezarri zuten arreta goiztiarreko zerbitzua martxan eta orain beste urrats bat egin behar dute: zerbitzua doakoa izango da.



10 URTEKO IKASLEETATIK % 59 ARI DIRA EUSKARAZ; 14 URTEKOETATIK % 42

Arrue ikerketaren hirugarren azterketa aurkeztu dute eta ikusi dute euskararen erabilera esparru indartsuena dela eskola. Ikasle gazteetan % 80ra iritsi da erabilera, gelan irakasleekin daudenean. Erabilera jaitsi egiten da bi aldagairekin. Batetik, eskolako eremuarekin: gelan baino gutxiago egiten dute euskaraz jolastokian. Bestetik, adinarekin: hamazazpi punturen aldea dago 10 eta 14 urteko ikasleen erabileran; gazteenek % 59, eta helduenek, % 42. Ohartarazi dute euskararen egoera soziala dagoela ezberdintasun horren oinarrian: ikasleak hazi ahala, gero eta eragin handiagoa dutela hizkuntzari buruzko gizarte arauak.



Eusko Jaurlaritzak eta Soziolinguistika Klusterrak egiten dute Arrue ikerketa. 2011n egin zuten lehen azterketa zabala, bi ikasmilatako ikasle guztiekin; 2013an bigarrena, eta 2015ekoaren emaitzak aurkeztu zituzten atzo. Ebaluazio diagnostikoak baliatzen dituzte euskararen erabilera ikertzeko: Lehen Hezkuntzako laugarren mailako eta DBHko bigarren mailako ikasleei egiten diete ebaluazioa, eta euskararen erabilerari buruzko galderak sartzen dizkiete. 38.900 ikaslek baino gehiagok emandako datuak erabili dituzte azken ikerketa egiteko. Erabilera datu aitortuak dira, hortaz.

Eskolako erabilera aztertu dute zehazki, baina handik kanpokoaz ere galdetu diete ikasleei, aldeak ikusteko. Argigarriak dira, adibidez, etxeko erabileraren datuak: 10 urteko ikasleek % 29ko erabilera dute, eta 14 urtekoek, % 22koa. Lehen hizkuntza ere erdara dute ikasle gehienek: hamarretik seik.

Testuinguru hori ikusita, eskolako erabilera datuak lorpena direla nabarmendu dute. Adibidez, etxeko erabilera datuak bikoiztu egiten dira ikastetxean. "Eskola da ikasle gehienentzat eremurik euskaldunena, eta haietako hainbatentzat euskaraz aritzeko aukera eskaintzen dien bakarra".

'BEITU' SORTU DUTE, NERABEENTZAKO HEDABIDE DIGITALA

Euskarazko komunikabide berri batek argia ikusi berri du. *Beitu!* du izena, eta propio 14-18 urte arteko gaztetxoengan pentsatuta dago. *Gaztezulo*-k sortu du hedabide hori, eta bertako zuzendari Zuriñe Maguregik nabarmendu duenez, aldizkaritik harago pauso bat ematea erabaki dute.

"Hamazazpi urte dira *Gaztezulo* sortu zenetik, eta garai batean harpidetu ziren gazte gehienek 30 urte baino gehiago dituzte. Ez da gauza bera 15 urteko gazte bat edo gaztea izaten jarraitzen duen 35 urteko gazte bat". Maguregiren hitzetan, 14-18 urte arteko gaztetxoengana iristeko erronka dute *Beitu!*-ren bitartez. "Nerabeak kateatu nahi ditugu. Horretarako, haien benetako errealitatea ikertu dugu. Konturatu gara papereko edukiak gero eta gutxiago kontsumitzen dituztela, bat-bateko eduki laburrei erreparatzen dietela, eta une oro itsatsia dutela sakelako telefonoa".

Errealitate hori aintzat hartuta garatu dute *Beitu!*-ren proiektua. Teknologia berrietara egokitzen den plataforma digitala; hilerok, izena ematen duten gazteek Whatsapp bidez jasoko dute hedabidea sakelako telefonoan.



HIZPIDE IZANGO DA

KUBAKO HEZKUNTZA-SISTEMA EZAGUTZEKO BIDAIA PEDAGOGIKOA ANTOLATU DU HIK HASI-K DATORREN MARTXOAREN 30ETIK APIRILAREN 7RA



Joan den apirilean Finlandian eta urrian Reggio Emilian izan ondoren hango hezkuntza-sistemak ezagutzen, Kubara bisita pedagogikoa egiteko aukera izango da datorren martxoaren 30etik apirilaren 7ra, Hik Hasi-k antolatuta. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza ezagutzeaz gainera, "Haurra hezten" programa herritarra eta unibertsitateko irakasleen formazio jarduna ezagutzeko aukera ere izango da. Plazak mugatuak direnez, Hik Hasi-ko norbanako harpidedunek izango dute lehentasuna. Laster informazio osoa eskuragarri izango da www.hikhasi.eus webgunean.

PSIKOMOTRIZITATEAREN INGURUKO MONOGRAFIKOA ARGITARATU DU HIK HASI-K; DURANGON IZANGO DA SALGAI

Alvaro Beñaran terapeutak eta Luzaro psikomotrizitate taldeko kideak koordinatuta, psikomotrizitatearen gaineko monografikoa argitaratu du Hik Hasi egitasmo pedagogikoak. Bertan, batetik, psikomotrizitate praktikara gerturatzeko zenbait gako ematen dira, alegia, haurra bere osatasunean gorputz eta psike gisa ikusteko eta haurren garapenari, ongizateari eta harremani psikomotrizitate-jardunak egiten dien mesedez jabetzeko; bestetik, berriz, hezitzaileentzat bidelagun izatea du xede liburuxka honek. Durangon salgai izango da prezio berezian: 8 euroan (5 euroan harpidedunentzat).

"KOMUNIKAZIO EZ BORTITZA BIZITZEN" DVD-A ARGITARATU DU ARBEROA IKASTOLAK

Donamartiriko Arberoa Ikastola duela 8 urte sortu zen. Hastapenetatik, komunikazio ez bortitza izan da ikastetxe kideen arteko harremanetarako ildo nagusia. Jokatzeko era horrek errespetuzko pedagogia ekarri du berekin. Euren proiektu pedagogikoa eta egindako prozesu osoa azaltzeko 47 minutuko DVD bat argitaratu dute. Arberoa Ikastolari eskaera eginda (info@arberoaikastola.org) eskura daiteke DVDa, edota Hik Hasi-ren bidez (hikhasi@hikhasi.eus-era idatzita edota www.hikhasi.eus webgunean).

"JIRA BUELTAN" BILDUMA PUBLIKATU DUTE, BETIKO 50 KANTA ETA JOLASEKIN

14 jolas, 30 kanta-jolas eta 7 abesti biltzen dituen liburuxka (letrak, azalpenak eta irudiak) eta DVDa argitaratu du Badihardugu Elkartek, 0-12 urte artekoentzat, baina batez ere 4 eta 10 urte bitartekoentzat. Guraso, hezitzaile eta irakasleei zuzendua dago, nagusiki. Aurreko belaunaldiei jasotako kanta eta jolasak berreskuratu eta biziberritzea da lan hoen helburua. DVDa eskuratzeko idoia@ahotsak.com-era idatz daiteke.



Reggio Emiliako hezkuntza-proiektua, 0 eta 6 urte artean garatzen dutena, eredugarri bilakatu da mundu osoan. Ez kasualitatez, saiatzen baitira haurra erdigunean jartzen, kalitatezko inguruneak eskaintzen, zaintza egokia ematen, harreman aberatsak eraikitzen... Eta horretarako guztirako, euren eguneroko jardunaren gainean hausnartzen eta eztabaidatzen dute etengabe, ateratako ondorioetan oinarrituz euren praktika hobetzeko. Urriaren 11tik 14ra bitartean, Euskal Herriko 65 hezitzaile izan ziren bertan Hik Hasik antolatutako bidaia pedagogikoan. Han bizitakoaren eta ikasitakoaren zati bat jasotzen da artikulu honetan.

GAIA: REGGIO EMILIA

Haurra subjektu politiko, eskola akuilari

Egiten dutena ikusgarri bihurtu eta besteekin partekatzen dute Reggio Emiliako habietako (0-3) nahiz haur-eskoletako (3-6) profesionalek. Umeez, gurasoek, irakasleek nahiz bestelako langileek egunero bizitzen dituzten esperientziak jaso eta ikusgarritasuna ematen diete argazkien bidez, idatziz, bideoan grabatuz... Zertarako? Hezkuntzari buruz eztabaidatzeko, euren jardunaren gainean elkarriketak abiatzeko, egunero egiten duten horri buruz beste hezitzaileekin, adituekin, profesionalekin... batera hausnartzeko eta ateratako ondorioetan oinarrituz euren praktika hobetzeko. Hain zuzen ere, horixe da Reggio Emiliako nortasunaren ezaugarriarik garrantzitsuenetarikoa bat, 1963an hezkuntza-proiektua abiatu zutenetik bertatik hasita. Eta horixe egin zuten urriaren 11tik 14ra bitartean Euskal Herriko 65 hezitzaileekin ere: euren eguneroko praktika nolakoa den erakutsi zieten, eta jardun horren atzean dagoen filosofia azaldu, ez metodologia zehatz bat esplikatzeko edota jarraitu beharreko eredu ziur baten berri emateko, baizik eta euren esperientzia besteekin partekatzeko eta beren praktika pedagogikoan kontuan izaten dituzten gako nagusiak zeintzuk diren esplikatzeko.

“Munduan inon ez dago haur txikientzat pentsatutako politikarik”, Reggio Emiliako hezkuntza proiektuaren inguruko azalpenaren abiapuntu gisa Paola Cagliari hiriko haur-habien eta -eskolen zuzendariak darabiltzan hitzak dira.



Bere esanetan, haur txikientzat prestatzen diren zerbitzuek eta martxan jartzen diren eskaintzek ez dute haurraren jartzen fokua, lanera joan behar izaten duten haren inguruko helduengan baizik. “Europarri pentsatzen dugu asko aurreratu dugula maila sozialean, baita haurtzararen politiketan ere, baina egitan, kontuak bestelakoak dira. Errealitatean, Europako leku anitzetan uste da 0-3 bitarteko umeentzat edozer gauzak balio duela”. Reggio Emilian urrats bat aurrera egiten ahalegindu dira, eta testuinguru horretan ulertu behar da bertako hezkuntza-proiektua eredugarri bihurtu izana, saiatzeko baitira haurra erdigunean jartzen, kalitatezko inguruneak eskaintzen, zaintza egokia

GAIA: REGGIO EMILIA

Haurra subjektu politiko, eskola akuilari

ematen, harreman aberatsak eraikitzen... Eta horri guztiari gehitu behar zaio urte luzeetako tradizioa, denbora askoren poderioz iritsi baitira mundu mailan erreferente izatera.

Reggio Emilian aspaldi erabaki zuten hezkuntza lehentasunezko auzia zela. Hezkuntzaren gainean gogoeta egitea, eskolan auzi publikoez eztabaidatzea, diskurtso pedagogikoa diskurtso politikoarekin uztartzea, ikastetxeak elkar-gune sozial gisara erabiltzea... ez da kontu berria hirian. Gutxienez Bigarren Mundu Gerra ostera egin behar da jauzi Italiako zonalde honetan hezkuntzaren gainean duten ikuspegi ulertzeko. Heziketa aurrerakoiaren arrastoak, ordea, lehenago ere antzeman daitezke: 1860 inguruan, Italiaren bateratze-prozesu garaian, eraiki zen lehen eskola laikoa Reggio Emilian. Ume behartsuentzat sorturiko zentroa zen, haurrek etxetik zekartzaten desberdintasunak konpentsatzeko pentsatua. 30eko hamarraldian, baina, faxismoaren ondorioz, eredu berdinzale hori desagertu egin zen eta eskola laikoa elizaren esku geratu zen atzera. Hamarraldi luzeetako lanak, ordea, arrasto sakona utzi zuen hirian, eta Bigarren Mundu Gerra bukatu eta hurrengo egunean —sinbolikoki, apirilaren 25ean— hiriko bizilagunek 3 eta 6 urteko ume-

entzako eskola bat sortzea erabaki zuten, eta baita egin ere. Euren eskuz eraiki zuten, adreiluz adreilu, gerrak suntsitu zituen eraikinetako materialak erabilia. *XXV Aprile* izena jarri zioten, egun seinalatuaren oroigarri. “Konfiantza eta itxaropen ekintza zoragarria izan zen. Italia berpizten hasi zen momentu horretan, eta horrekin batera ordura arte inolako eskubiderik aitortzen ez zitzaizen pertsona batzuei, lehendabiziko aldiz, eskubideak aitortu zitzaizkien: umeei eta emakumeei, hain zuzen. Garai hartan, emakumeen eta umeen eskubideen aldarrikapena estuki lotuta egin zen, eta testuinguru horretan ulertu behar da Reggio Emiliako haur-eskolen sorrera ere, emakumeen emantzipazioari begira batetik, baina baita umeen eskubideei begira ere”, dio Cagliari. *XXV Aprile*-ren ostean, beste 7 herri-eskola eraiki zituzten Reggio Emiliako gizon emakumeek, baina eskola horiek ere ez ziren nahikoa garaiko eskariari erantzuteko, eta, beraz, emakumeek mobilizazioei ekin zieten, kalera irten ziren eta protesta egin zuten, euren emantzipazioa erreibindikatzeko ez ezik, baita umeentzako kalitatezko zerbitzuak eskatzeko ere. Emakume haien borroka gogorren ondotik, 1963an sortu zen udalaren mendeko lehen haur-eskola eta 1971n lehen habia.



Azpiratuenen eskubideen aldeko borroka horren testuinguruan agertu zen Loris Malaguzzi “pedagogo ez akademikoa”, Reggio Emiliako hezkuntza-proiektuaren arima bilakatu zena. Cagliari argitzen duen eran, pedagogiatik abiatuta arreta handia eskaini zien dimentsio politikoari eta sozialari. Emakumeen borrokarekin bat egin zuen, eta eremu politikoan aurrenekoz, umeari eta haurtzaroiari buruz hasi zen hizketan. Lehen aldiz aipatu zituen umeen eskubideak, ez soilik zainduak izateko duten eskubidea, baita ikasteko duten eskubidea ere. Umeek ikasteko daukaten premia asetzeko eskolak duen obligazioaz mintzo zen, baita haurrek espresatzeko daukaten modu guztiak errespetatzearen garrantziaz ere. Umeek harritzeko daukaten gaitasunaz eta ikertzeko duten grinaz hasi zen hizketan. Haurrei buruz mintzo zen hiritar gisara, alegia, subjektu politiko gisara, eta umeek mundua ikusteko duten modua, alegia, “haurren kultura” deiturikoa gizarteratzeko ahalegina egin zuen.

Diskurtso horren aurrean ez zuen oso gizarte harbera topatu, baina bere ideia aurrerakoiak zabaltzen eta garatzen jarraitu zuen. Hala kontatzen du Cagliari: “Zer egin zuen Malaguzzik herritarren jarrera itxi horren aurrean? Bada, eskolak ireki zizkien hiritarrei eta eztabaida soziopolitikoak eskolara eramane zituen. Adituak, politikariak, gurasoak, irakasleak... guztiak inplikatu ziren eztabaida haietan. Argi geratu zen hezkuntza ez zela soilik hezitzaileen kontu tekniko bat, baizik eta herritar guztiei dagokien ardura bat”. Irakasleak eranstean duenez, ikastetxeetako ateak hiriari zabaltzeaz gainera, eskolako jarduna bera ere hirira atera zuen. Margolariak, artistak, eskulturgileak... balira bezala, umeak kalera atera zituen, margoak eta erremintak hartuta, euren sormena herritarrei erakusteko eta hiriari eskaintzeko. Helburua zen jendeari ikusaraztea haurrek nolako gaitasunak, trebetasunak, sormena... duten. Finean, umeen kultura ikusgarri egin eta duintasuna eman nahi izan zion. “Argi utzi zuen heziketa guztion ondasuna dela, eta umeen eskubideak errespetatzea gizarte osoaren erantzukizuna dela”. Testuinguru horretan sortu zen Reggio Emiliako eskola berria, bi zutarri nagusiren gainean: gaitasunak dituen umea zentroan jarrita, eta komunitate osoaren parte-hartzean oinarrituta.

Uneotan Reggio Emiliako Udalak bere aurrekontuaren % 16 erabiltzen du 0-6 urte arteko hezkuntzarako. Familien eskariei erantzuten saiatzen dira eta gertuko gestioan sinesten dute horretarako. Baina baditu bestelako hainbat ezaugarri ere bertako hezkuntza-sistemak, kalitatea bermatzeko funtsezkoak direnak:

- **Erreferentziazko helduak:** hasi 0 urtetik eta 6 urtera

arte unibertsitate mailako formazioa duten hezitzaileak egoten dira umeekin, egun osoz. Hezitzaile guztiek dute maila bereko ardura eta binaka, hirunaka edo taldean egiten dute lan haurrekin, irakasle guztiak izanik haur denen erreferentziazko heldu: “Oso desberdina da hezitzaile bat zazpi umerekin egotea edota hiru hezitzaile 21 umerekin jardutea. Kopuruak berberak izan arren, bigarren aukerak heziketarako askoz ere posibilitate aberatsagoa eskaintzen du gure irudiko”, zehazten du Cagliari. Hauexek dira ratioak: 3 hilabete eta urtebete artean irakasle bakoitzeko bost ume; urtebete eta hiru urte artean irakasleko zazpi haur; eta 3-6 adin tartean bi irakasleko 26 ume. Hezitzaileez aparte, beste lanbide batzuetako profesionalak ere eskolako hezkuntza-proiektuan txertatuta egoteari berebiziko garrantzia ematen diote Reggio Emilian; hala nola, atelieristak, sukaldariak edota garbitzaileak. Den denek dute heziketaren ardura eta erantzukizuna, eta guztiek batera osatzen dute haur-eskola edo habia horretan egiten den proiektuaren ardura partekatzen duen lan-taldea. “Haurrak ikasteko orduan daukan diziplina-aniztasunaren gaineko ezagutza eduki behar du lan-talde horrek, eta baita umei askatasunean uzteko gaitasuna ere. Hala, umeek eskolako edozein txokotan topatuko dute eurez arduratuko den helduren bat”.

- **Kalitatezko ingurunea:** zehazki harremanak sustatzeko daude prestatuta espazioak; haurren arteko erlazioa batetik, ume eta helduen artekoa bestetik, eta inguruarekiko eta bertan dauden objektuekiko harremana hirugarrenik. Era berean, esploratzeko eta ikerketak egiteko prestatutako eremuak dira: “Umeak eta helduak elkarrekin ikasten duten talde bihurtzea nahi dugu. Espazioak aukera desberdinak eskaintzen dizkie talde horretako partaideei eta aurkikuntza desberdinak ahalbidetzen dizkie, harridura eragiten eta ustekabeko topaketak sortzen”. Ikastetxeen arkitekturak berak ere aukera ematen die haurrei era bateko zein besteko begiradak egin ahal izateko, Cagliari dioen moduan, ez baita posible munduari begirada bat eta bakarraz begiratzea. Barrualdeko espazioan eta kanpokoaren artean etengabeko lotura egiten ere saiatzen dira Reggio Emilian. Funtsean, arkitekturaren eta espazioaren antolaketaren bidez ere balio pedagogikoei erantzun nahi diete.
- **Formazioa eta proiektuaren gaineko gogoeta:** ikastetxeko lan-taldeko kide guztiek euren lan-orduen barruan espresuki elkarrekin biltzeko eta euren hezkuntza jardunaren gainean hausnartzeko tartea dute. Formazio

GAIA: REGGIO EMILIA

Haurra subjektu politiko, eskola akuilari

ordu horiek ez dira beraz hezitzaileentzat soilik, baita sukaldari, atelierista eta proiektuan parte hartzen duten beste guztientzat ere. Formazioari eta profesionalen praktikari estuki lotuta ulertzen dute Reggio Emilian eguneroko egiten duten hori dokumentatzea, alegia, euren hezkuntza jarduna ikusgarri egitea argazkien, idatzien, bideoen, erakusketen... bidez. Hala azaltzen du Cagliarik: “Dokumentazioa ez da bakarrik aukera estrategiko bat, baizik eta aukera etiko bat ere bada. Aukera hori hezitzaileek eurek egiten dute, ez umeei zerbait irakasteko asmoz, baizik eta umeei batera zerbait eraikitzeko xedez. Elkarrekin gauzak egin ahal izateko beharrezkoa da haurrekin etengabeko elkarrizketa bat edukitzea, helduak ulertu behar duelako zer ari diren egiten, zer ari diren eraikitzen, zer esaten duten... ”

Beraz, dokumentazioak balio du ume bakoitza nolako den jakiteko eta baita haur horien ikasketa prozesuak ezagutzeko ere”. Dokumentazio lanak, era berean, balio die aldian behin umeen kultura deritzoten hori hirira eramanean eta herritarren artean erakusteko, uste baitute hiriak inbertsio handia egiten duela 0-6 adin tarteko hezkuntzan, eta beraz, haurrek berrietan lortzen duten jakintza hori herritarrei itzultzea dagokiela. “Horrekin batera hiriari gogorarazten diogu umeei ere badutela eskubidea beraien kultura espresatzeko lekuak izateko, eta ikusarazteko gure habien eta haur-eskolen kalitatea ezin dela zalantzan jarri”.

Dokumentazioa darabilte formazioerako ere. Adituak ere ekarri ohi dituzte, baina eskola tradizionalak egin ohi duten moduan ez diete haiei prestakuntza saioak emateko eskatzen, baizik eta habia nahiz haur-eskoletan egiten duten lana, alegia, dokumentatuta daukaten praktika hori erakusten die eta horren gainean jarduten dute: “Beraien iruzkinak eta komentarioak interesatzen zaizkigu, baita kritikoak direnean ere, hori baita gure jarduna hobetzea ahalbidetzen diguna”.

Konplexutasuna, haurren garapenerako oinarri

Eguneroko praktika pedagogikoan hainbat gako kontuan izateaz gainera, Reggio Emiliako hezkuntzako profesionalen jardunaren atzean haurren gaineko, harremanei buruzko, eta humanitatearen garapeneraren inguruko filosofia oso bat dute garatua, jatorria 60ko hamarraldian duena, baina harrezkero egunez eguneko lanarekin elikatuz joan direna. Paola Strozzi Reggio Emiliako habietako eta haur-eskoletako pedagogoak dioten moduan, 0-6 urte

arteko umeari buruz helduak duen irudiak baldintzatu egiten du hezteko modua ere; beste hitz batzuetan esanda, irakaskuntza-prozesuan egiten den edozein aukeratan eragina du ikuspegi horrek, eta horregatik da garrantzitsua egiten dutenaren inguruko ideologia filosofiko bat garatua izatea. Strozzi 3 hariri tiraka azaltzen du filosofia hori guztia: haurren gaineko irudia; hurbilpen erlazionala; eta 100 hizkuntzen teoria.

• Umeari buruzko irudia:

Gustuko dute Reggio Emilian haurri buruz hitz egitea, eta sarri mintzatzen dira umea zer denaren gainean, uste baitute kontzeptu horrek azalerazi egiten duela bertako profesionalak zer-nolako jarrera eta jokamoldea duten haurrekin daudenean, baita espazioa edota proiektuak prestatzeko orduan edota euren praktika guztietan ere.

Strozzi azaltzen duenez, “infantzia” hitzak (euskaraz etimologia berbera izan ez arren, Europako hainbat hizkuntzatan halaxe da), hitz egiten ez duena esan nahi du. Beraz, definizio hori umeak egiten ez dakien horretan oinarritzen da, eta ez egiten dakienean. “Haur txikiak ez dute hitz egiten, noski, baina komunikatzen dute, eta gainera, asko. Hitz egiten ez dakien norbait bezala ikus daiteke haurra, edota etengabe komunikatzen ari den subjektu bezala. Ikuspegi horrek bakarrik gure lan egiteko moduan eragina izango du. Izan ere, umea eta haurtzarora ez dira berez existitzen, baizik eta horiek gizarteak eraikitako elementuak dira, konstruktio sozialak dira. Eta horiek nolakoak, halakoa izango da umeen gainean daukagun irudia nahiz haiekin jarduteko modua ere”.

Reggio Emilian 0 eta 3 urte arteko umeentzako habiak “afektibitatearen leku” gisa hautematen dira, edo haurren ardura duen espazio gisa, nahiz zaintza gune bezala. Aldiz, haur-eskolak, 3-6 urte artekoak, gehiago ikusten dira sozializazioerako eremu gisa. “Geure buruari galde diezaiokegu zer-nolako lotura ote dagoen, afektibitatearen, zainketaaren, sozializazioaren eta ikasketaren artean. Guretzat denak dira garrantzitsuak eta gure apustua da kontzeptu horiek ez banatzea bata bestearengandik, eta ideia horiek guztiak presente izatea eta garatzen joatea egun osoan zehar, eta baita espazioak eta proiektuak diseinatzen direnean edota materialak aukeratu eta haurrei aurkezten zaizkienean ere”.

Beraz, Reggio Emiliako ikuspegiak ez da haurri zer falta

GAIA: REGGIO EMILIA

zaion ikustea eta falta zaion hori eskaintzea. Adibide bat jartzen du pedagogoak: “Demagun ama faltan botatzen duela eta guk amaren papera hartzen dugula”. Ez, ez da hori haurraz duten irudia. Pedagogoak esplikatzen duen moduan, literatura pedagogiko eta psikologiko zabala dago umea ezezagunari beldurra dion izaki hauskor gisa aurkezten duena, baina Reggio Emilian ez dute horrekin bat egiten. “Guk inolaz ere ezin dugu literatura horrek dioena aplikatu, baizik eta umea eskolara datorrenean behatu egin behar dugu eta hemengo testuinguruan ikusi eta interpretatu, beti ere, umearengan konfiantza izanaz eta gai dela sinetsiz”. Horrexegatik, ez dute inolako metodorik jarraitzen, nahiz eta badituzten erreferentziak eta baduten esperientzia. Eta horietatik atera duten ondorio nagusia da umeak eurak direla euren hazkuntzaren eta garapen prozesuaren protagonista eta eskolaren egitekoa dela baliabideak eskaintzea umeek taldean eta aktiboki parte hartuz ikas dezaten. Horretarako darabilten erreferentzietako bat soziokonstruktibismoa da.

Azken aldian, baina, soziokonstruktibismoari ez ezik, arreta handia ari dira jartzen neurozientziak dioenari ere,

erakusten baitu nolako lotura estua dagoen adimenaren eta gorputzaren artean, alegia, nola garatzen den garuna gorputzezko esperientzien bitartez. Neurozientziak dioenetik edaten dute baita ere arlo desberdinen arteko interkonexioa ulertzeko orduan: “Azken 30 urteotan probatu dute garuna interkonektatuta dagoen zerbait dela eta ez duela konpartimentuka funtzionatzen, ez dagoela zati bat besteetatik aparte, baizik eta guztiak elkarloturik daudela. Neurozientziak erakutsi digu baita ere bizitzako lehen-dabiziko bi urteetan galtzen ditugula jaiotzean ditugun neuronetatik erdiak, baina garatzen ditugula bizitza osoan izango ditugun sinapsietatik % 80. Beraz, erantzukizun handia daukagu bizitzako etapa horretan haurrekin egoten garenek, gero %80ko oinarri horren gainean eraikiko baita haur hori”. Beraz, Strozzi gaineratzen duenez, habien eta eskolen egitekoa izango da sinapsi horiek ahalik eta aberatsenak izatea. Nola baina? Reggio Emilian argi dute: haurra hainbat testuingururekin, esperimenturekin eta jarduerarekin kontaktuan jarritz. “Horrexegatik, guk haurrei eskaini nahi dieguna ez da ikasketa jakin batzuk, baizik eta esperimentazioa. Sare neuronalak ez direlako eraikitzen irakaskuntza gogor baten bitartez, baizik eta



GAIA: REGGIO EMILIA

Haurra subjektu politiko, eskola akuilari



umeei esperientzia interesgarriak eskainiz eta pasioa sentiaraziz, pasiorik gabe ez baitago ikaskuntzarik”.

- **Ikuspegi erlazionala:**

Kontzeptu hauxe da Strozzi burura etortzen zaion lehendabiziko ideia Reggio Emilia zer den galdetzen diotenean. Ideia honek esan nahi du haurrek erlazionatzen diren heinean ikasten dutela, hau da, helduekin, beste hurrekin, ingurunearekin, materialekin... harremanak dituztelako egiten dutela ikaskuntza prozesuan aurrera. “Gure ingurunera lotzen gaituen zerbait esperimendatzeko dugunean ikasten dugu. Hortaz, esate baterako, guk ezin diogu kanpotik irakatsi ume bati nola sozializatu behar duen, baizik eta testuinguruak eskaini behar dizkiogu berak ikus dezan eta esperimentatu dezan nola garatzen den sozializazio hori, umeek berez baitaude horretarako gaitasuna”.

Annette Karmiloff-Smith-ek egindako ikerketako beste ideia bat ere oso gogoan hartzen dute Reggio Emiliako hezkuntza-proiektuan: “adimen modularra” kontzeptua, hain justu. Birdeskribapen errepresentazionalaz dihardu kontzeptu horrek, hau da, dio umeek ez dituztela kon-

zpetuak ikasten, baizik eta egiten dutena dela kontzeptu horiek birdeskribatu testuinguru desberdinetan, eta beraz, etengabe daudela ikasten. Strozzi azaltzen duenez, ideia horretatik ondorioztatzen dutena da ikasketa-prozesua ez dela zerbait lineala, baizik eta zerbait gorabeheratsua dela: “Horregatik, umeak ezin ditugu epaitu esanaz ‘ume hau ona da’, edo ‘ume hau txarra da’, edo ‘ume honek hau ikasi du’, edo ‘ume honek hau ez du ikasi’, baizik eta interesatzen zaiguna da ikustea nola garatzen duen ikaskuntza-prozesu hori guztia, bere garapenean lagunduko dioten esperientzia desberdinak eskaini ahal izateko, bereziki elementu kualitatiboetan arreta jarritz, eta ez horrenbeste kuantitatiboetan”. Era berean, Reggio Emilian atxikimendu anitzean sinesten dute, hau da, iruditzen zaie haurren erreferentzia ez dela soilik akonpainatzen dituen heldu bakar hori, baizik eta umeak harreman seguru bat baino gehiago izan ditzakeela, heldu bat baino gehiagorekin, baina baita beste umeekin, ingurunearekin edota materialekin ere. “Umeari segurtasuna ematen diona ez da soilik heldu bat, baizik eta testuinguru guztia”.

- **100 hizkuntzen teoria:**

Loris Malaguzziaren poesia pedagogikoa gogora ekarrita “Haurraren 100 hizkuntzen” teoria kontuan hartu behar

GAIA: REGGIO EMILIA

dela diote Reggio Emilian. Horrekin aditzera eman nahi dute umeak barruan duena adierazteko hamaika modu darabiltzala, eta gainera, hori espresatzeko eskubidea duela eta horri bide egin behar zaiola. Horrekin batera, Edgar Morin filosofoaren ideia bati ere arreta handia jartzen diote: konplexutasunaren teoriara daraman ideiarri, hain zuzen. “Gauzak banatzen dituen pentsamenduaren orde — matematika batetik, hizkuntzak edo musika bestetik... — gauzak batzen dituen pentsamendu bat eskaini behar dugu. Eta, praktikara etorrira, nola eraikitzen dugu aldi berean bereiz daitekeen baina batu ere egiten duen pentsamendu hori? Hor egin behar dugu lan”. Sinplekeriatik urrun, haurrei errealitate konplexuak eta aberatsak eskaintzea da Reggio Emilian horretarako darabilten estrategietako bat, zabaldua dagoen ustearen kontrara, probatuta baitago haurrak munduaren konplexutasuna ulertzeko gai direla, unean-unean duten garapenaren arabera.

Haurraren 100 hizkuntza horiek ez dituzte soilik tailerretan lantzen, eskola egun osoan baizik. Umeek taldean jarduten dute, elkarrekin, baina bat ari daiteke gauza batean eta bestea bestean. Horrek ahalbidetzen die bakoitzari bere adierazkortasunarekin konektatzea, “modu horretan haurrak ikertzaile sentitzen direlako eta ez obeditu beharra daukaten pertsonak. Eskola tradizionalan zer egiten da? Adibidez, koloreak lantzeko fitxa berbera eskaintzen zaie ume guztiei, eta bakoitzak egingo du ahal duen moduan. Batzuek hobeto egingo dute eta beste batzuek ez dute hain ondo egingo. Baina kasu horretan non geratzen da umearen pasioa? Eta non umeen espresibotasuna? Eta plazera? Eta non dago irakaslearen gogo urtero fitxa berberak eman behar baditu? Izan ere, plazerik handiena horixe da, ikastea, bai umearentzat baina baita helduontzat ere; ikustea zerbait ari dela aldatzen, zerbait ari dela gertatzen, zu zeu ari zarela zerbait ikertzen, zerbait aurrera doala”.

Dimentsio etikoa presente uneoro

Reggio Emiliako hiru lan-tresna nagusiak — behaketa, dokumentazioa eta proiektugintza — praktika etiko baterako giltzarri gisa ikusten dituzte bertako profesionalek. Lucia Colla Reggio Emiliako irakasleen formatzaileak esplikatu bezala, behaketa umeengandik hurbil egoteko modua da, euren prozesuak eta proiektuak eraikitzen dituztenean haiei adi egotea esan nahi du. Behaketa,

beraz, umeek adierazten dituzten pentsamenduak eta egiten dituzten ekintzak eta ikerketak jasotzeko modu bat da. “Baina behaketak galdera askoren beharra dauka, eta tresna egokiak ere behar dira behaketa behar bezala egiteko. Ez da nahikoa gu bertan egotea zer gertatzen den ikusten. Behatutako hori interpretatu egin behar da eta dokumentatu. Eta dokumentazio hori ikusgarria izan behar da, bestela ezin delako haren gainean eztabaidatu, eta ondorioz, ezta proiektu egokiak prestatu ere umeentzat”.

Testuinguru horretan sartzen da jokoan Reggio Emiliako lanaren dimentsio etikoa. Izan ere, hezkuntzako profesionalek egunero ikasleekin batera egiten duten lana jasotzeak, besteen aurrean ikusgarri egiteak eta horren gainean eztabaidatzeak irakaslea ahalguztiduntasunetik erantzen du, “horrek gardenki jokarazten digu eta umiltasunez, ezin baitugu pentsatu guk dena dakigunik, ezta guztia zuzen interpretatzen dugunik ere; pentsamendu horrekin funtzionatuko bagenu umea bakarrik uzten ariko ginatke”. Horregatik hitz egiten dute dimentsio etikoz, umearen izaera eta haren prozesu kognitiboa errespetatzen dutelako. Eta lan egiteko modu horrek laguntzen die ulertzen haur-eskolak eta habiak ez direla gune hierarkizatuak, baizik eta leku demokratikoak direla, zeinetan umeekin batera eraikitzen den haien heziketa-prozesua.



Sormena ez da zerutik erortzen

Gerra ondoan, 60ko hamarraldiko berpizkundean du Reggio Emiliako hezkuntza-proiektuak sorburua. Garai hartan pedagogiaren eta psikologiaren arloan hainbat autore nabarmendu ziren moduan —hala nola, Sigmund Freud, Jean Piaget edota Paulo Freire—, filosofia eta artea uztartu zituzten beste hainbat pentsalarik ere indar handia hartu zuten Europan, eta Italia ez zen korronte horretatik kanpo geratu. Horien artean zeuden Ludwig Wittgenstein, Rudolf Arnheim, edota Ernst Gombrich. “Artearen psikologoak ziren, artearen filosofoak”, hala definitzen ditu Isabella Meninno Centro Internazionale Loris Malaguzziko atelieristak. Garai hartan, zientziak bezalaxe, arteak ere munduari begiratzeko modua birdefinitu zuen. Artea jada ez da jaiotzen atzean arte hori eskatzen ari den norbait dagoelako, baizik eta artistarengandik berarengandik sortzen da. “Artista poeta bihurtu da eta bere mundu ikuskera eta poetika azaltzen ditu artearen bidez”.

Reggio Emiliako pedagogiaren arloak ere erreferentzia horietatik guztietatik edan zuen. Are gehiago, eskola iraultza horretaz guztiaz hitz egiteko eta eztabaidatzeko topaleku bihurtu zen. Reggio Emilian argi zuten eskolak ere ezin zuela lehen bezala jarraitu, iraultza bat egin behar zutela. Eta iraultza horren baitan ulertu behar da artista bat eskolan sartzea —atelierista, hain zuzen— eta tailerretan lanean hastea. “Leonardo Da Vinci-ren garaikoen antzeko tailerrak eraiki zituzten eskoletan, zeinetan mahai baten bueltan hamaika elementu jartzen zituzten eta bertan jarduten zuten jakin barik eta bereizi barik zer zen zientzia eta zer artea”.

Geroztik, tailerra leku berezi bilakatu da Reggio Emiliako hezkuntza eremuan, dimentsio estetiko-poetiko bat ekarri diolako hezkuntzari. Tailerrak, gainera, bete-betean erantzuten dio Loris Malaguzziren 100 hizkuntzen ideari, izan ere, tailerretan lanean hasi arte hitzezko hizkuntza zen adierazpide nagusi. Tailerretan, ordea, beste hamaika hiz-

kuntzari edo espresatzeko moduri ere atea irekitzen zaie. “Gu sinetsita gaude hizkera espresiboak oso garrantzitsuak direla ezagutza osoago bat edukitzeko”, gaineratzen du Meninnok.

Tailerra ez dago pentsatuta arte eskola bat edo laborategi bat izateko, tailerretan ez baitzaie eskatzen umeei artea sortzeko edota zerbait jakina erreproduzitzeko, baizik eta eurek barruan duten hori ateratzeko eremua da. Adibide bat jartzen du atelieristak: “Ume bati eska diezaiokegu [Edward] Munch-en *Garrasia* obra kopiaatzeko, eta aukera bat izan daiteke, baina gure irudiko hor zerbait falta da. Gure ustez, umeei egin beharko luketena da mina deskribatzeko orduan euren forma bereziak erabili, euren koloreak, trazoak... hau da, eurek min hori adierazteko daukaten modua islatu beharko lukete. Haur guztiei eskatzen badiet obra jakin bat errepresentatzeko, ume guztiek, gutxi asko, gauza berbera egingo dute eta nik ez dut ulertuko ume horiek, batak bestearekiko, nolako diferentzia kulturalak eta artistikoak dituzten. Onartzen badugu umeei ere badutela beren sentsibiltate artistiko berezia, orduan ez ditugu eurak traizionatzen eta ezta artistak ere”.

Reggio Emilian inolaz ere ez dute ikusten sormena zerutik erortzen den zerbait bezala, lanketa baten ondorioz garatzen den zerbaiten moduan baizik. Horretarako umeei proiektu konplexuak planteatzen dizkiete eta erronka zehatzten aurrean jartzen dituzte. “Guk argi daukagu batetik, edertasunaren ideia jarduera konkretuetan gauzatzen dela; eta, bestetik, proiektuak proposatzerakoan eztabaidara jo behar dugula bide batzuk hautatzeko eta beste batzuk errefusatzeko; funtzionatzen ez duten ideiak baztertzeko eta funtzionatzen dutenak aurrera eramateko”.

Burututako proiektu zehatz baten adibidea jartzen du Meninnok: herriko antzoki nagusiko oihalaren diseinua egiteko eskatu zitzaion umeei proiektu batean. “Proiektu

GAIA: REGGIO EMILIA



konplexua da, horrek eskatzen duelako ezagutzea antzoki batek eta antzerki obra batek nola funtzionatzen duten, oihalaren diseinuan eman beharreko irudiak koherentea izan behar duelako funtzionamenduari. Lehenik taldeka eztabaidak egin zituzten haurrek ikusteko proiektua nola gauzatu zuten; eta ondoren, bozeto bat egin zuten, gero eskala handiagoan irudikatzeke. Meninoren hitzetan, teknika horien guztien barruan, finean, hainbat modutara pertsonak bere burua espresatzeko duen premia dago txertaturik. “Ohartu behar dugu horrelako proposamenen eta proiektuen bidez haurrek hasieran duten errealitatera baino mundu askoz konplexuago batera egin behar dutela

jauzi”.

Azken batean, Reggio Emilian tailerrak, sorkuntza, irudigintza, adierazpen grafikoak... ez dituzte erabiltzen ordu bat betetzeko baliabide bezala edo jarduera gehigarri gisa, baizik eta pentsatzeko probesten dituzte, lanketa kognitibo eta emozionalerako, garuna osatzeko... Haurrek munduari buruz daukaten ikuspegia irudikatzen, lantzen eta islatzen dute tailerretan, baina ez hori bakarrik, une honetan diren eta dakiten horretatik abiatu eta errealitate konplexuago batera jauzi egiteko ahalmena trebatzen dute, “eta hori funtsezkoa da pertsona gisa garatzeko”.



“Hezkuntza-sistemak ez dira interbentzio puntualen batuketaren bidez aldatzen, baizik eta ikuspegi sistemiko bat garatuz”

ELKARRIZKETA: RENATO OPERTTI

HEZKUNTZAREN IKERTZAILEA ETA UNESCO-KO KIDEA

Keycolab, Lehen Hezkuntzako konpetentzia gakoekin lotutako programan parte hartzen ari dira Nafarroako ikastolak, eta, horren harira, Keycolab Nazioarteko Konferentzia antolatu zuen irailean Iruñean Nafarroako Ikastolen Elkarteak, 'Konpetentziek hezkuntzan duten rola birpentsatzen' izenburupean. Renato Opertti soziologo uruguaiarrak bertan "Hezkuntza-sistemak eta ikasleen konpetentziak birpentsatuz

mundu nahasi batean' hitzaldia eskaini zuen. Operttik besteak beste curriculumaren, ikaskuntza-prozesuaren eta hezkuntzaren berrikuntza eta garapena sustatzea helburu duten programetan egiten du lan Unescoren baitan, eta, hain zuzen, hezkuntza paradigma aldatzeko beharraz aritu zen bere hitzaldian, konpetentziak ez ezik hezkuntza-sistema osoa birpentsatu behar direlakoan.



Konpetentziek hezkuntzan duten eginkizuna birpentsatzeaz aritu zara Iruñeko jardunaldietan. Zertan aldatu behar dira konpetentziak, eta zertarako?

Konpetentzien gaia ezin da modu isolatuan aztertu, oinarritzkoa da gaia ikuspegi globalago batetik analizatzea. Izan ere, konpetentzien inguruko eztabaida hezkuntza-sistema osoaren inguruko gogoetan kokatu behar da: konpetentziak sistemikoki integratu behar dira hezkuntza-sisteman, eta horrek hezkuntza-sistema bera birpentsatzea dakar. Hori izan da Latinoamerikan aurkitu dugun arazoetariko bat: konpetentzien bidez saiatu izan dira aldaketak eragiten, baina hezkuntza-egiturak ez daude prestatuak horretarako, izan curriculumagatik, pedagogiagatik edo ikastetxe ereduagatik. Beraz, gure ustez, hezkuntza-sistemaz eta, oro har, hezkuntzaz dugun ikusmoldearen inguruko gogoeta egitea eskatzen du konpetentzien inguruan eztabaidatzeak. Konpetentziak proiektu soil gisa ulertzen baditugu, edo berrikuntza eragiteko modu bezala, prozesu horrek ibilbide laburra izango du; konpetentziak aztertzeak hezkuntza-sistema osoa

birpentsatzea eskatzen du.

Beraz, konpetentziak ez ezik, hezkuntza-sistema osoki birpentsatu behar da?

Hala da, eta eztabaida horrekin mundu mailako aldaketa bat eragin behar da. Teknologia aldaketa handia eragin du mundu-mailako baldintzetan, laugarren industria-iraultza ekarri baitu, eta horrekin errotik desberdinak dira bizitzeko beharrezkoak diren konpetentziak.

Laugarren industria-iraultzaren testuinguruan, teknologia ez du soilik definitzen zer egiten dugun edo nola egiten dugun, nola sentitzen edo pentsatzen dugun, horrez gain zein garen zehazten du. Munduaz dugun pertzepzioa definitzen duen elementuetariko bat bilakatu da teknologia: nola aldatzen da gizakiaren jokabidea? Gizaki izateak zer esan nahi du? Izan ere, gizaki izatea zer den berdefinitzen ari da teknologia, bizitzaren zikloak luzatuz, gizakiek arazoei erantzuteko duten gaitasuna areagotuz, makina inteligenteak gure bizitzan duten garrantzia handituz. Zaila da egun mundu birtuala eta mundu bibentziala bereiztea, eta gure nortasunean eragina du horrek.

Teknologia jada ez da gure bizitza hobetzen duen zerbait, gizaki gisa definitzen gaituen zerbait baizik: gaur egun mundu birtualaren eta bibentzialaren arteko nahasketa bat gara, eta horrek definitzen du gure bizitzeko modua, gure sentitzeko modua. Eta gai horrek uneoro egon behar du presente hezkuntzaren inguruko gogoetetan.

Gure artean ohikoak dira egun gailu gero eta txikiagoak baina potentzia handiagokoak, giza gaitasunak areagotzen dituzten makina inteligenteak, ibilgailu autonomoak, 3D inprimagailuak, gizakien genetika aldatzeko aukerak... Horiek ez dira per se teknologia kontuak, etikarekin dute zerikusia, sortu nahi dugun eredu sozialarekin. Eta baita hezkuntzarekin ere, eztabaidan jartzen baitituzte hezkuntza-sistemaren orain arteko hainbat oinarri.

Adibidez?

Batetik, irakastearen eta ikastearen arteko banaketa. Horrek ez dauka zentzurik, irakasteak ikastea baitakar, eta alderantziz. Ez dut sinesten irakaslearengan zentratutako heziketan, ezta ikaslearen zentratutakoan ere, bi elementuen

nahasketa beharrezkoa baita, ikastea eta irakastea lotuta baitaude. Laugarren industria-iraultzak erakutsi digu hezkuntzako edukiek lotura izan behar dutela arazo eta egoerei erantzuteko gaitasunarekin. Edukiek ez dute zilegitasunik izango beraien aplikaziotik edo testuingurutik bereizten badira. Edukien kategoria tradizionalak, irakastearen eta ikastearen banaketa tradizionalak, zentzua galtzen dute, etengabe egon beharko baitute nahastuta bizitzako erronka eta egoerei erantzuteko.

Pertsonak, ikasleek, ez diete diziplina zehatzeko arazoei aurre egin behar, bizitzako egoerei baizik; eta, egoera horietan, diziplina desberdinetako jakintzak erabili behar dituzte. Errealitatean ez dago Biologia ikasgaiko arazo baten irtenbide aurkitu beharrik, edo Fisikakoa edo Matematikakoa; ez, zientzietan duten jakintza erabiltzea eskatzen duen arazoekin aurkituko dira. Beraz, oinarritzakoa da ikasleari jakintza eta diziplina desberdinen artean konexioak egiteko gaitasuna garatzen laguntzea.

Bestalde, gainditu egin behar dugu kompetentzia “gogor” edo “inportanteen” (hizkuntzak eta matematikak ikastea) eta “arinen” (elkarbizitzen ikastea, komunikatzen ikastea...) arteko banaketa hori. Badirudi baldintzek eta emozioek ez dutela zerikusirik, baina gero eta nabarmenagoa da lotura estua dutela hezkuntzan, ikaskuntza-prozesua emozioetan oinarritzen dela.

Horrez gain, hezkuntzaren ikuspegi tradizionalaren arabera, ikaslea informazio hartzaile izan da, baina egun jakintza sortzaile ari da bihurtzen. Egiaz, bai ikaslea bai irakaslea etengabe ari dira jakintza sortzen, etengabe egin behar diete aurre erronkei eta horretarako jakintza mota desberdinak erabili behar dituzte. Eta ez die balio jada dagoena erreproduzitzeak, erantzun berriak sortu behar dituzte. Ikaslearen estatus epistemologikoa aldatzea gakoa da curriculumak eta pedagogiak eraldatzerakoan.

Azkenik, gero eta beharrezkoagoak dira, eta izango dira, ikuspegi zabala duten pertsonak, formazio zehatza dutenak baino. Industria-iraultza

honek erakutsi digu pertsonak humanitateko nahiz zientzietako jakintzak integratu behar dituztela, jakintza teorikoak nahiz praktikoak. Jakintza jada ez dago diziplinetan banatua, baizik eta erronka bati erantzun ahal izateko erabili behar duten elementua da egun jakintza. Beraz, gure ikasleak balio-aniztasunean, malgutasunean, moldagarritasunean, diziplinartekotasunean formatu behar ditugu, ikuspegi zabal hori izateko; jada ezin ditugu elkarren artean loturarik ez duten diziplina pusketan hezi.

Beraz, irakastea eta ikastea zer den birpentsatu behar dugu, hezkuntza sistema zer den, eta horrekin lotutako erronkei erantzuteko kompetentziak sortu. Hezkuntza paradigma aldatu behar da.

Zein dira paradigma aldatzeko gakoak?

Paradigmaz ari garenean jokabide zehazte batzuk dakartzaten balio, sinesmen eta jakintzaz ari gara. Nire ustez, hezkuntzaren gakoa da ume bakoitzari ikasteko aukera pertsonalizatu bat eskaintzea. Ikasle bakoitzari bere berezitasuna onartu behar zaio. Inklusioaren kontzeptu zaharraren arabera, ikasle batzuk bereziak ziren; gaur egun Unescok erabiltzen duen kontzeptuaren arabera, guztiok gara bereziak, eta guztiok dugu babes-tuak izateko beharra. Guztiok ditugu gaitasun eta ahultasun erlatiboak, eta bakoitzaren berezitasuna onartzea oinarritzakoa da hezkuntza bakoitzaren neurrikoa izan dadin, pertsonalizatua izan dadin, alegia.

Orain arte batez besteko ikasle bat imajinatu izan dugu eta horren neurriera irakatsi hezkuntza-sistema, baina hori fikzioa da, batez besteko ikasle hori ez da existitzen, gutako bakoitzak desberdina da. Giza garun bakoitzak ezaugarri indibidualen mosaiko bat da. Neurozientziak dio garunak ikaskuntza-prozesuan eragina duela, eta ikaskuntza-prozesuak eragina duela garunean. Ikasle bakoitzari bereziki estimulagarria den hezkuntza-esperientzia ematen badiogu, indartu egingo da neuronen arteko konexioa, sinapsia delakoa. Eta horrek eragina izango du ikasle horren gaitasun so-

“Laugarren industria-iraultzak erakutsi digu hezkuntzako edukiek lotura izan behar dutela arazoei eta egoerei erantzuteko gaitasunarekin”

“Ikasleek ez diete diziplina zehatzeko arazoei aurre egin behar, bizitzako arazoei baizik, eta, egoera horietan, diziplina desberdinetako jakintzak erabili behar dituzte”

“Irakastea eta ikastea zer den birpentsatu behar dugu, hezkuntza sistema zer den, eta horrekin lotutako erronkei erantzuteko kompetentziak sortu. Hezkuntza paradigma aldatu behar da”



zialetan, memoria erabiltzeko nahiz ikasteko ahalmenean... Hezkuntza paradigma berriak, beraz, ikaslearen berezitasuna onartzea eskatzen du.

Horrekin batera, ikuspegi tradizionalaren arabera, irakaslea da curriculuma inplementatzen duena. Baina curriculuma ez da inplementatzen, baizik eta elkarlanean garatzen da. Tradizioaren arabera, curriculuma preskripzio bat zen, agindu bat, baina errotik aldatu behar dugu curriculumaren zentzua: ez da agindu bat, landu beharreko ikaskuntza-prozesu bat baizik.

Bestalde, hezkuntzaren paradigma aldatzeko jakintzaren inguruko ikuspegia aldatu behar da. Aurrez esan bezala, jakintza ez da dizipline-tan banatuta transmititzen, horrekin ikasleak ez baitu errealitatearen ikuspegi globala izango. Jakintzak bere horretan ez du zentzurik, balio eta zentzua hartzen du bizitzako arazoei eta errotik erantzuteko erabiltzen den heinean. Konpetentzia bat garatzeko oinarria da jakintza, eta balioa hartzen du errealitatearekin konektatzeko gai den heinean.

Eta, paradigma aldaketa hori gauzatzeko, kontuan izan behar dugu nola ulertzen dugun aldaketa bera kontzeptu gisa. Herrialde askotan hezkuntza aldatzen saiatu dira han eta hemen egindako proiektuen bidez, zentro zehatz batean edo diziplina

zehatz batean esku hartuz. Baina modu horretan ez da hezkuntza-sistemaren DNA aldatzen, proiektuak interbentzio puntualak baitira, eta ez dute zertan ekarririk sistema osoaren eraldaketa. Hezkuntza-sistemak ez dira interbentzio puntualen batuketaren bidez aldatzen, baizik eta ikuspegi sistemiko bat garatuz.

Bestalde, kontuan izan behar da nola ulertzen dugun konpetentzia. Izan ere, maiz konpetibitatearekin lotu izan ditugu. Pertsona bakoitzak, bere berezitasunean, bere jakintza, gaitasunak, balioak egoera zehatzei erantzuteko erabiltzen dituen moduak dira konpetentziak. Konpetentzia ez da jakintzen aplikazioa bakarrik, egoera zehatzei aurre egiteko jakintzen integrazioa baizik.

Bakoitzari egokitutako hezkuntza aipatzen duzu, nola gorpuzten da eguneroko praktikan?

Gero eta gehiago, ikaskuntza-prozesuak pertsonalizatuak izan behar dira. Onartzen badugu norbanako bakoitza bakarra dela, eta, ondorioz, ikasteko modu propioa, berezia duela, orduan hezkuntza-eskaintza errealitate horretara egokitu behar dugu. Eta ikasketaren prozesu pertsonalizatu horretan, bi elementu izan behar ditugu kontuan. Batetik, ikasleek beraien gaitasun eta beharretara egokituriko baliabideak behar dituztela ikasketaren

prozesuan. Hau da, baliabideak ikasle bakoitzaren beharren arabera definitu behar ditugu, eta ez aurrez pentsatu, batez besteko ikasle hori buruan. Bigarrenik, teknologia ez da izan behar ikaskuntza-prozesuko baliabide soil, horrez gain irakasleek ikaslearen beharrekin konektatzeko tresna izan behar du. Alegia, on-line edo ez-presentziala den denbora tartea sortuko dute ikasteko eta irakasteko. Bi denborak bateratuz, aurrez aurrekoa eta on-line delakoa, ikasleak bere formazioa pertsonalizatzeko aukera izango du.

Bestalde, curriculumek gero eta aukera gehiago emango diote ikasleari zer ikasi nahi duen eta nola aukeratzeko. Eta ez naiz ari aukerazko ikasgaiez, baizik eta ikasleek nahierara aukeratzeko, menu batean bezala, zer ikasi nahi duten, oinarriko formazio unibertsala beraien intereseko gaiekin osatuz. Beraz, etorkizuneko hezkuntza ez da diziplinen arabera izango, baizik eta gaien arabera. Horrek sakoneko aldaketa bat dakar: ikasleak bere intereseko gaiak aztertzen ditu, eta diziplinak gai horietara iristen lagunduko dioten lanabesak izango dira. Zenbait herrialdetako curriculumetan zeharkako gaiek gero eta leku gehiago hartzen dute. Horien bidez, ikasleak berak osatuko du bere hezkuntza-ibilbidea, beti ere, noski, hainbat baldintzetan,

besteak beste ekitatea bermatuz.

Horrek guztiak ez du esan nahi diziplinak ez direnik garrantzitsuak; alderantziz, ezinbesteko lanabesa dira ikasleei gaiak arakatzeko laguntzeko. Baina diziplina horien rola berrikusi egin behar da, eta pentsamendurako lanabes gisa ulertu behar ditugu. Beraz, ikasleek erabakiko dute zer ikasiko duten, nola eta zer proiektutan parte hartuko duten.

Zein izango da irakasleen rola prozesu horretan?

Ikaslearen aholkularia izango da, orientatzailea. Irakasleak lagunduko dio ikasleari ulertzen nola erabili jasotzen duen informazioa, horri zentzua ematen, sintesirako nahiz konexioak egiteko gaitasuna garatzen.

Horrekin lotuta, etorkizuneko hezkuntzaren inguruko eztabaidaren muina da nola berregituratu irakasleen formazioa. Adibidez, irakasleen formaziorako curriculumek aintzat hartu beharko dute ikaskuntza-prozesuaren pertsonalizazioarekin loturiko guztia. Izan ere, ironikoa da irakasleei gai horiek lantzeko eskatzea ez badute horretarako formaziorik jaso, eta hori herrialde askotan ari da gertatzen.

Irakasleen formazioa da birpentsatu beharreko beste alorretako bat. Izan ere, hasieran esan bezala, kompetentziak modu sistemikoan integratzeko hezkuntza-sistemaren osagai guztiak birpentsatu behar dira.

Curriculumak errealtateko erronka eta arazoei erantzun behar diela diozu. Errealtateari erantzun bai, baina ez al dute izan behar, era berean, errealtatea aldatzeko baliabide ere?

Curriculumak islatzen ditu eta erantzuten die haur eta gazteen errealtatean aurkitzen diren arazoei, baina horrek ez du esan nahi errealtate hori onartzen duenik: curriculumak izan daiteke bizi dugun munduarekiko tresna kritikoa. Baina, horretarako, munduari irekia egon behar du. Horregatik Unescon curriculum “glolokal” batez hitz egiten dugu: ikuspegi globala duen curriculumak, baina, era berean, tokikora edo lokalera ekarria, aintzat hartu behar baitira tokiko kultura eta errealtateak

ere. Izan ere, globala eta tokikoa ez dira kontzeptu kontrajarriak, osagarriak baizik.

Honekin lotuta, kompetentzietz hitz egitean eztabaidarako bi plano bereizi behar dira. Batetik, eztabaida programatikoa legoke: zer kompetentzia behar ditu gazteak herrialdea, gizartea garatzeko? Bestetik, eztabaida ideologiko-politikoa legoke: zer motatako hezkuntza nahi dugu, zein motatako gizartearentzat? Kompetentziak azter daitezke bakoitzak eraiki nahi duen gizartearen isla gisa, edo errealtatera hurbildu eta horri erantzuteko prozesu metodologiko gisa, eta bi azterketa horiek bereiztea garrantzitsu da. Gainera, kompetentzia izan daiteke eraiki nahi dugunaren adierazle soziala, edo izan daiteke ikasleari arazoei erantzuteko balio dion lanabesa. Lehena eztabaida programatikoa litzateke, bestea metodologikoa.

Behin sistema eta horren osagaiak birpentsatuta, nolako kompetentziak eskatzen ditu definitu duzun sistema horrek?

Kompetentziak lau taldetan bana daitezke. Lehenengoan, oinarrizko alfabetizazioarekin loturikoak leudeke: ikasleak eguneroko eginkizunetarako behar dituen gaitasunak, edozein ikaskuntza-prozesuren oinarrian daudenak. Kompetentzia talde honetan aldaketa handiak izan dira. Lehen hizkuntza eta matematikak osatzen zuten, baina gaur egun oinarrizko kompetentzietz hitz egitean bigarren hizkuntzaz, pentsamendu konputazionalaz, edo kodifikazioaz ere ari gara. Etorkizunean, hizkuntza kodifikatua menderatzen ez duen haur bat analfabetoa izango da, edozein lanetan jakin beharko baitu edozein informazio area programatzen. Edo, horrekin batera, finantzen inguruko oinarrizko jakintza izan beharko du, hain finantzieroa den mundu honetan, herritar kompetentea izango bada.

Bigarren kompetentzia taldean baliabide metodologikoak deitzen ditugunak leudeke, ikasleek agindu eta erronkei erantzuteko duten gaitasunarekin lotuak. Nola hezi gure haurrak eta gazteak arazoei erantzuteko gai izan daitezen, pentsamendu

“Hezkuntza-sistemaz eta hezkuntzaz dugun ikusmoldeaz gogoeta egitea eskatzen du kompetentzietz eztabaidatzeak”

“Kompetentzia ez da jakintzen aplikazioa bakarrik, egoera zehatzei aurre egiteko jakintzen integrazioa baizik”

“Ikaskuntza-prozesuak pertsonalizatuak izan behar dira. Onartzen badugu norbanako bakoitza bakarra dela, eta, ondorioz, ikasteko modu propioa, berezia, duela, orduan hezkuntza-eskaintza errealtate horretara egokitu behar dugu”



kritikoa gara dezaten, sortzaileak izan daitezten, besteekin komunikatzeko eta negoziatzeko gai izan daitezten? Nola garatu iritzi propioa, nola izan kognitiboki malguak egoera berrien aurrean ere erantzuteko gai izateko, nola ikasi ikasten? Hori guztia oinarritzkoa da. Izan ere, etorkizuneko munduan ez dira ildo zehatzak izango; gaur egun ikasten ari diren haurren %65k orain existitzen ez diren lanbideak izango ditu, gaur egun ez dauden zereginetan. Beraz, zertan formatu behar ditugu? Bada, ezezaguna zaien mundu batean lan egiteko malgutasuna eta egokitze gaitasuna emango dieten prozesuetan eta baliabideetan.

Hirugarren kompetentzia taldea, pertsonen ezaugarriekin lotua dago. Haustura sakonak, errotikako aldaketak gertatzen ari diren garaiotan gure pentsatzeko eta jokatzeko modu tradizionalak zalantzan daude. Beraz, nola hezi gure ikasleak hausturazko mundu horretarako? Bada, trebatu beharko ditugu adimen emozionalen, enpatian, norbere buruaren zaintzan, harremanetan, komunikatzeko moduan, portaeran...

Azkenik, mundu global horretan kompetente izatera bideraturiko kompetentzien taldea legoke: munduko eta tokiko hiritar kompetente izaten lagunduko dietenak. Talde honetan leudeke giza eskubide eta balio unibertsalak ezagutzeko gaitasunak, genero edo afiliazio dibertsitatea errespetatu eta onartzea, mundu jasangarri batekin konprometitutako pertsona izatea... Alegia, nola bilakatu gure gazteak mundua sostengatuko duten izaki? Beren tokiko errealitatea, herrialde, gizatasuna sostengatuko duten izaki?

Lau kompetentzia talde horiek har ditzake aintzat curriculum batek, horra nire proposamena. Eta noski, kompetentzia talde horiek antolatzen dute curriculum, eta ez alderantziz. Lau bloke horietan oinarrituriko curriculum batek honako 5 atal izan ditzake: oinarritzko alfabetizazioa; norberaren eta taldearen zaintza eta garapena; diziplinarteko eta proiektuetan oinarrituriko ikaskuntza-prozesua; gaikako sentsibilitateekin lotuak; tutoretzak eta ikaskuntza-prozesuetarako laguntzak. Adibide bat litzateke hori.

“Etorkizuneko hezkuntzaren eztabaidaren muina da nola berregituratu irakasleen formazioa. Irakasleen formaziorako curriculumek aintzat hartu beharko dute ikaskuntza-prozesu pertsonalizatuekin loturiko guztia”

KUBAko hezkuntza ezagutzeko bidaia pedagogikoa

Martxoaren 30etik apirilaren 7ra

Haurra hezten programa



Haur Hezkuntza



Unibertsitatea



Lehen Hezkuntza

Unibertsitate
aurrekoa



Bigarren Hezkuntza



Plaza mugatuak direnez, Hik Hasiko norbanako
harpidedunek izango dute lehentasuna.

Informazio osoa www.hikhasi.eus helbidean

ESPERIENTZIAK

ERRIGORA

Erriberako ikasleak Errigora goratzen

Azaroaren 2an, Nafarroako Erriberako Lodosako Ibaialde, Vianako Erentzun eta Tuterako Argia ikastoletako ikasleek egun-pasa egin zuten Ablitasen, Aragoiko mugan. Helburua, Errigora ezagutzea: zertarako sortu zen, zer ekarpen egiten duen eta Erriberako euskal taldeei nola eragiten dien entzun eta hausnartu zuten, baita parte hartu ere bertan antolatutako HERRILANEAN. Izan ere, aurten, Errigorak HERRILANA hartu du kanpainako lelotzat, eta ideia horretan jarri nahi izan dute arreta eta egin nahi izan dute indarra; Errigora, behetik gorako HERRILAN erraldoi, alai, anitz, praktikoa eta komunitarioa dela deritzotelako.



Errigora Taldea
Hainbat eragileren aurkezpena

Ablitaseko ekitaldian, ikasleekin batera, hainbat hezitzaile, Jose Mari Agirretxe “Porrotx” pailazoa eta Josu Txapartegi “Txapas” aritu ziren abesten, dantzatzen, Erriberako produktuak dastatzen eta herriko olio errota bisitatzen. Porrotxek azalpenak eman zizkien ikasleei Errigoraren gainean, eta, errotako langile Carlosek oliba-olioa ekoizteko egiten den prozesu osoaren ibilbidea erakutsi zien, eta hark emandako azalpenak euskarara itzuli zizkien ikasleei pailazoak.

Ondoren, Erriberako produktuak dastatuz hamaiketako ederra egin zuten. Horrez gain, lan ere egin zuten 6-15 urte bitarteko neska-mutilek, kaxak (saskiak) osatzen, hurrengo egunetan Euskal Herri osoan banaketa lanetan ariko ziren bolondresentzat produktuak prestatzeko.

Zer da Errigora?

Errigora Euskal Herria oinarri eta elkarlana lanabes dituen ekimen herritarra da. Nafarroa hegoaldea du ardatz eta “euskara ofiziala ez den zonaldean” eragin nahi du, eremu horretakoak propio diren produktuei Euskal Herrian bidea emanaz, euskaratik, euskararako eta euskaraz.

Norabide horretan, egunetik egunera gero eta zabalagoa den lagunarte batek ematen dio gorputza ekimenari; ilusioz eta anbizioz ari diren herritar,



nekazari, euskaltzale, ekoizle eta kontsumitzaileez osatutako sare anitzak. Txikitasunetik elkarlan handi bat gauzatu nahi dute, “Nafarroak Euskal Herria behar duelako eta Euskal Herriak Nafarroa”.

Zeintzuk dira Errigoraren helburuak?

- Nafarroa hegoaldeak propio dituen produktuak Euskal Herriko plazan kokatzea, urrunekoen ordez bertokoak kontsumitu ditzagun.
- Nafarroa hegoaldean “euskara ofiziala ez den zonaldeko” euskalgintzari bultzada ekonomikoa ematea.
- Herrigintza, auzolana, nazio-erakuntza... “betiko” lan kolektiboan oinarrituz ekarpen txo bat egitea, lan molde honen beharra eta indarra goraiatuz.

“Zubigintza”, iazko leloa

Zubiek amildegian bidea egiten dute. Aparteko munduak lotzen dituzte. Bazterrak erdigune bihurtu. Ametsak errealitate.

Zubigintza amildegia gurutzatzeko artea da. Bizkarrez dauden munduak elkarri begira jartzekoa. Ertza abiapuntu bihurtzekoa. Alegia egia egitekoa. Horixe da, hain zuzen, Erri-

goraren langintza: zubiak eraikitzea.

Zubiak eraiki dituzte euskal herrien artean. Ablitas eta Arrasate lotzen dute, edo, Ainhize eta Tuteran. Euskal herritarren arteko zubiak eraikitzen dituzte, auzolanean eta bizipozez.

Zubiak eraiki dituzte: lurra eta euskara lotu dituzte, auzolana eta elikadura-burujabetza, nekazariak eta euskaltzaleak, ekoizle eta kontsumitzaile arduratsuak...

Hiru kanpaina urtean

Urtero, hiru kanpaina prestatzen dituzte. Lehenengoan, udaberriaren hasieran, oliba-olioa banatzen da.

Bigarrengoan, udaren atarian, hainbat kontserba-pote edo lata banatzen dira: orburuak, esparragoak, toma-tea, piperrak... Eta, hirugarrengoan, udazkenean, hainbat produktuekin osatutako kaxak edo saskiak banatzen dira. Azken salmenta horren % 25 Erriberako euskararen aldeko elkarteei ematen zaie hango euskara egoera hobetzen joan dadin.

Izandako lorpenak

Errigora osatzen duten ekoizle, sarekide eta kontsumitzaileei esker, Nafarroa hegoaldeko uzta Euskal Herriko 200 herritan baino gehiagotan



ESPERIENTZIAK: ERRIGORA



banatzen da. 6.000 etxetara heldu zen iaz (aurreko urtean baino %20 gehiago), 86.500 litro olio (%15 gehiago) eta 208.000 ontzi kontserba (%30 gehiago) banatu ziren. Produktu guztiak bi moldetan eskaintzen dira: konbentzionala eta ekologikoa.

Errigoraren bolondres sareak ere, gero eta jende gehiago du. Gero eta gehiago dira auzolan ariketa horretan ari direnak. Eta kontsumitzaileen ikuspegitik ere, gero eta gehiago dira bertoko produktuen alde egiten duten kontsumitzaile arduratsuak, bertako ekoizpen eta merkaturatze ereduaren alde egiten dutenak.

Azaroaren 3an, Ablitaseko herri kooperatiban, kanpainan parte hartu duten 25 ekoizleak elkartu ziren. Errigorak zabaldu dizkien plaza berriak, kontsumitzaileekiko sortzen ari diren harreman zuzenak eta etorkizunera begira ekimenak sor ditzakeen merkatu eta zirkuitu alternatiboak izan ziren mintzagai. Iniziatiba herritar batek izan dezakeen erreferentzialitate eta indarraz jardun ziren.

Azaroaren 4an, berriz, saski saski, katelanean, milaka herritarren eskariari erantzuteko, Euskal Herri osotik joandako bolondres asko hurbildu zen Ablitaseara. Batzuk urrunagotik eta besteak hurbilagotik, baina guztiak ilusio eta alaitasun osoz duten onena emateko asmoz. Gustura prestatu zituzten ondorengo asteetan 200 herri baino gehiagotan banatuko diren saskiak edo kaxak.



Egin IRRIAREN HARPIDETZA... eta jaso DVDA edo CDA opari!



- ✓ Haurren irakurzaletasuna sustatu.
- ✓ Haurrak balioetan hezi.
- ✓ Babestu Irrien Lagunak Kluba egitasmoa!
- ✓ Hilabetekaria, urtean 10 zenbaki, etxean.
- ✓ 44 orrialde, koloretan, komiki eta denborapasekin!
- ✓ Jaso klubeko bazkide txartela.

NON EGIN HARPIDETZA?

1. Elkar dendetan
2. Katxi porretaren ikuskizunetan
3. 902820806ra deituz
4. harpidetza@irrienlagunak.eus
5. www.irrienlagunak.eus/harpidetza orrian



URTEAN
49 EURO!



EKARPENAK

HEZIKETA EMOZIONALA

Zer garrantzi dute emozioek irakasteko eta ikasteko prozesuan?

Ikasgelan, emozioen koktel batetik pasatu behar izaten dute haurrek. Presio akademikoak ez ezik, gizarteak ezartzen duen presioak ere ez du laguntzen. Emozioen koktel horren barruan, pozik edota haserre egotetik minduta, harro, barregarri edo urduri sentitzera pasatzen dira, minutu gutxian. Haurrentzat, emozioz betetako presio-eltze bat da eskola.

Emozio horietatik guztietatik pasatzeak ez du laguntzen ikaskuntzan, eragin handia baitute komunikazioan, arretan eta memorian.

Hezkuntzak ongizate pertsonala eta soziala sustatzea izan beharko luke helburu. **Ongizate emozionala** lortu behar dugu, lagunduko dioten emozioak esperimendatuz eta, horrela, zorientasunera gerturatuz. Horretarako, beharrezkoa da haurra gaizki sentiarazten duten emozioak ondo



Itxaro Mendizabal

Ttiklik-eko koordinatzailea

kudeatzen ikastea.

Hezkuntza esatean, ez gara soilik hezkuntza formalera (eskoletara) mugatzen; edozein testuingurutan egiten den ikaskuntzaz ari gara. Eskola da, ordea, familia guztietara heltzeko modu bakarra, ikaskuntza formaletik igaro behar izaten dugunez herri aurreratuetan bizi garen orok.

2003. urtean, Nel Noddings-ek (feminista, hezitzailea eta filosofoa) eskoletan soilik “trebezia ekonomikoak” azpimarratu beharrea –hala esaten zien hark– bizitzarako prestatzeak zuen garrantzia azpimarratu zuen (*Happiness and Education* liburua, Cambridge).

Ikasteko prozesua

“Ikaskuntza, ikasketa ere esaten zaiona, izaki baten kognizio-sistema (ezagutzei, trebeziei eta horien baliagarritasunari dagokienez) praktika baten bitartez eta modu iraunkorren errealitatearen ingurune batera egokitzen duen gogamenaren jardura da. Portaeraren jatorrizko eragileztat jotzen da. Badago ikaskuntza-ren kontzeptu murriz bat ere, aski zabaldua, ikaskuntza ezagutza baten barneratze edo oroimenean finkatze hutsarekin parekatzen duena” (Wikipedia).

Eskola barruan, irakasle batek helaraziko dizkio ezagutza horiek ikasleari. Ematen dion informazio horrek



zentzu bat, helburu bat izan beharko du jasotzailearentzat, hark bere garunean gordetzeko interesgarria dela sentitu behar baitu. Ikasi behar dugun horrek **arreta** eskatuko digu, beraz. Gure zentzumenek informazio hori gure etorkizunerako interesgarria dela ikusi behar dute, gure iraupenerako beharrezkoa dela sentitu behar dute. Emozioa, motibazioa eta jakinmina piztu behar ditu.

Arreta lortzea ikasketarako eta memorizatzeko aurrerapauso bat dela esan genezake.

Ikasketa-prozesua esplizitua edo emozionala (inplizitua) izan daiteke. Aurrenekoak energia-kontsumo handia eskatzen du, esfortzu kontziente bat (arreta selektiboa eta denboran zehar iraupena duena), eta errepikapen jarraitua (garunean gordetzeko). Prozesu geldoa izateaz gain, azkar ahazteko aukera asko ditu.

Ikasketa emozionalak, aldiz, ez du esfortzu handirik eskatzen. Ikasketa-prozesua automatiko eta inplizitua da; erraz barneratzen da, eta denboran zehar irauten du.

Ikasketa-prozesu bat gustura egiten bada eta gaia ondo barneratzen bada, lorpen-sentimendu handia sentituko dugu, eta ikasten jarraitzeko gogo handiagoa izango dugu.

Emozioak

Ez da lan erraza emozioak definitzea.

Bat-batean agertzen diren intentsitate handiko erreakzio afektibo gisa defini genitzake; gutxi irauten duten arren, haien ondorioz sortzen diren aldaketa somatikoek denboran zehar iraun egiten dute. Emozioak modu askotara eta helburu desberdinekin sor daitezke, eta sortzen dituzten ondorioak ere erabat desberdinak izan daitezke. Emozioek bermatu dute gure iraupena urteetan zehar.

Bisquerra-ren arabera (2003), honela sortzen da emozioa:

1. Gure garuneko zentro emozionalera informazio sentsorialak iristen dira.
2. Erantzun neurofisiologiko bat sortzen da.
3. Neokortexak interpretatu egiten du informazio hori.

Ezinezkoa da emozioak kontrolatzea, baina emozio horiek sortzen digutena, bai, kontrola daiteke; emozioa sentitu ondoren, nola erantzun erabaki dezakegu. Emozioek sortzen digutenak eskuetatik alde egiten digun unean, galdu egingo ditugu bai irakasteko eta bai ikasteko gaitasunak.

Durham eta Lancarter unibertsitateetan (Erresuma Batua) egindako ikerketa baten arabera, amaren sabelean dagoen umekia gai da hainbat emozio edo sentipen adierazteko (*Lateralidad: Asimetrías of Body, Brain and Cognition*, 2014). Jaio aurretik

“Ezinezkoa da emozioak kontrolatzea, baina emozio horiek sortzen digutena bai, kontrola daiteke; emozioa sentitu ondoren, nola erantzun erabaki dezakegu. Emozioek sortzen digutenak eskuetatik alde egiten digun unean, galdu egingo ditugu bai irakasteko eta bai ikasteko gaitasunak”

“Irakasleek beraien irakasteko modua ikasleen ikasteko moduarekin bateratuko balute, ikasle horien errendimendu akademikoa handiagoa litzateke; emozio positiboak sortuko lirateke horrela, eta, aldi berean ikasketa sakonagoa ekarriko luke horrek berak”



sentitzen baditugu, beraz, ez da zaila konturatzea **emozioak** gure eguneroko esparru guztietan daudela.

Memorian gordetzen diren oroitzapen gehienek **karga emozional** handia dute. Emozioek ikasten laguntzen digute. Hori horrela izanda, ezin ditugu baztertu **emozioak** hezkuntzaren munduan. Emozio horiek *positiboak* badira, irakasteko eta ikasteko prozesua erraztuko digute, eta, *negatiboak* badira, berriz, zaildu egingo dute prozesua.

Garai bateko hezkuntza **irakaslearengan** eta haren ezagutzetan zentratzen bazen ere, gaur egun, garrantzia **ikasleari** ematen hasi gara. **Irakaslearen eta ikaslearen arteko tandem**a osatu da, eta gehiago hartzen dira kontuan irakaste-prozesuan ikasle horrek dituen gaitasunak eta trebetasunak.

Zer eragin dute, orduan, emozioek irakasteko eta ikasteko prozesuan? Irakasteko eta ikasteko prozesuan emozioen bidezko lanketa sartzean, emaitza hobeak lortuko dira, gaiak eta baliabideak hobeto **transmititzen** eta **barneratzen** direlako emozioen bidez. Luzera begira, gainera, ez da

ikasgeletan ikasitakoa bakarrik gertatuko; emozioak kudeatzen dakienak **bizitza osorako baliabideak** eskuratuko ditu, eta bere bizi-kalitatea hobetuko etorkizunean. Azken finean, emoziorik gabe, ez dago arretarik, ez ikasketarik, eta ez memoriarik.

Irakasleek beren irakasteko modua ikasleen ikasteko moduarekin bateratuko balute, ikasle horien errendimendu akademikoa handiagoa litzateke, bi aldean emozioak kontuan hartuta, betiere; emozio *positiboak* sortuko lirateke horrela, eta, aldi berean, ikasketa sakonagoa ekarriko luke horrek berak. **Ikasketen eta emozioen zirkulu** bat sortuko litzateke. Alderantzizko kasuetan, ordea, apatia, interes eza, antsietatea agertuko lirateke, ikasleak ikasten ez duelako eta irakasleak aurrerapean ikusten ez duelako (A. Campos, 2010).

Hezkuntza emozionalak **gaitasun emozionalen** garapena du helburu. Gaitasun horiek behar-beharrezkoak dira bakoitzaren emozioak ezagutzeko, sentitzeko, ulertzeko, adierazteko eta modu egokian kudeatzeko.

Gaitasun emozionalen garapena, gainera, ez da inoiz amaituko, eta

horregatik du horrenbesteko garrantzia **bizitza-ziklo osoan** zehar eskura izateak. Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan, familian, gizartearen, helduarekin...

Emozionalki osasuntsua den pertsona batek –ikasle zein irakasle– gaitasun handiagoa izango du ikasteko eta irakasteko.

Gure emozioak zehazten jakiteak, nola sentitzen garen identifikatzeak, geure burua hobeto ezagutzen lagunduko digu. Horrela, gure portaerak zentzu positiboa izango du, eta hobeto adieraziko ditugu gure emozioak. Estresa, antsietatea eta depresio-egoerak kudeatzeko gaitasuna gara daiteke, emozioak ondo ezagututa eta erabilia. Gizarte-gaitasunak handitzen dira, autoestimua indartzen da, indarkeria-tasak jaisten dira, eta emaitza hobeak lortzen dira ikasketetan.

Garbi izan behar duguna zera da: ez dugu barneratuko ikasi nahi ez dugunik. Ez dugu ikasiko motibatzen ez gaituena, eta, ez bagaitu motibatzen, guregan emozio positiborik sortzen ez duelako da.

Eskolan, beharrezkoa ikusten dugu hezkuntza emozional egoki bat;

ikasleak ondo ezagutu behar du bere burua, bai eta ondokoak ere, elkarren arteko errespetua, enpatia eta kohe-sioa sortzeko.

“Sormenetik, irudimenetik eta batez ere plazeretik irakatsi behar dugu. Izan dadila ikasgela leku goxo bat, ezagutzarekiko eta aurkikuntza-rako pasioa transmititzeko egokitua” (Carolina Frigerio.)

“Eskolan, haur batek bere burua ezagutzeko behar duen gaitasuna, autoestimua, autonomia eta, batez ere, haren adimen-eremu emozionala landu behar lirateke, horixe baita bizitzarako baliagarrien izango zaion ikasketa, alderdi emozional horien lanketak eta garapen egoki batek bestelako eduki akademiko guztien integrazio egokiagoa ekarriko baitu” (Aintzane Irizar, 2016)

** Ez dago esaterik emozio bat positiboa edo negatiboa den. Baina funtzio positiboa edo negatiboa izan-

go du, hori bai, emozio bera une desberdinetan positiboa edo negatiboa izan daitekeelako. Beldurra, adibidez, positiboa izan daiteke, arrisku batetik alde egitera bultzatzen gaituen nean, eta negatiboa, geldiarazten gaitue-nean.

Gomendatutako irakurgaiak:



- *Educación Emocional. Propuestas para educadores y familias.* Rafael Bisquerra (Koord). (ed. Desclée de Brouwer, S.A., 2011)

Bibliografia:

- Bisquerra Alzina, R. (2003). “Educación emocional y competencias básicas para la vida”. *Revista de Investigación Educativa*, 2003, 21. liburukia, 1. zk., 7-43. or. <http://revistas.um.es/rie/article/viewFile/99071/94661>
- Durham eta Lancarter. *Laterality: Asymmetries of Body, Brain and Cognition*, 2014. <http://www.tandfonline.com/doi/abs/10.1080/1357650X.2014.920339>
- Frigerio Carolina. “Aprendizaje y Emoción” *Monografía Curso de Capacitación Docente en Neurociencias de Asociación Educar*. <http://www.asociacioneducar.com/monografias-docente-neurociencias/c.frigerio.pdf>
- Campos, A., “Neuroeducación: uniendo las neurociencias y la educación en la búsqueda del desarrollo humano”. *La educación. Revista Digital*, 143.2010
- Can Emotional Intelligence Be Taught?. http://www.nytimes.com/2013/09/15/magazine/can-emotional-intelligence-be-taught.html?_r=0
- *Haurtzaroko Gestalt terapia. Emozioak lantzeko proposamen praktikoa.* Monografikoa. Aintzane Irizar, 2016.

Adin guztietarako literatura paregabea!

www.erein.eus



GALDEIDAZU

NOLA LANDU DEZAKEGU IRAKASLEOK IKASLEEKIN GALEREN, HERIOTZAREN ETA DOLUAREN GAIA?

Dolua ez da hurbileko baten heriotzaren kudeaketa soilik; argi jakin behar dugu pertsona guztiok bizitzan zehar hainbat unetan topatuko dugun prozesu bat dela dolua; saihetsezina da, eta aurre egin behar izango diogu gertatzen zaigun aldi bakoitzean. Zergatik? Bizitzak aldaketak dakartzalako. Aldaketa horiek beti uzten dute atzean norbait edo zerbait, eta egoera berri bati irekitzen dizkiote ateak.

Hurtzaroan ere, hainbat galerari egin beharko dio aurre haurrak, hala nola rol-aldaketari anaia edo arreba bat jaiotzean, gurasoen banaketak eragindako galerari, lagun bat galtzeari, etxez aldatzeari, migrazioak dakartzan galera askotarikoei, garapenari lotutako galerei (adibidez, haurra izateari uztea), eta abarri. Galera horietako bakoitza atsekabearekin dator, eta modu berezi batean hunkituko du haurra.

Galerara egokitzeko prozesua da dolua, eta, horri aurre egiteko moduaren arabera, oso aberasgarria izan daiteke prozesuaren emaitza maila pertsonalean, edota korapilatu egin daiteke eta sufrimendua ekar diezaioke pertsonari. Horrexegatik da horren garrantzitsua dolua egiten ikastea, bai haurrantzat eta bai helduarentzat.

Galera esanguratsu baten aurrean, irakasleek honako estrategia hauek jarri ohi dituzte abian gaiari ahal bezain ondo aurre egiteko:

- **Ekiditea.** Galera gertatu ez balitz



ESTER ALVAREZ URIA

Psikologoa



bezala jokatzeari.

- **Ordezkatzea.** Beste gai batzuetan zentratzea. Orain arte aipatu ditugun estrategiek badute abantaila bat: bizipenaren desdramatizazioa egiten dute. Baina badute desabantaila garrantzitsu bat ere: galera izan duen haurrak edo haren ikaskideek izan ditzaketen beharrak ase gabe geratzea, behar bezala ez zaintzeagatik.
- **Laguntza emozionala ematea soilik.** Babesa eta maitasuna adieraztea. Helduarengan eta haren traumaren elaborazio-prozesuan zentratuta dagoen enpatiatik abiatutako esku-hartzea izaten da. Abantaila: haurrak une horretan maitatua eta ulertua izateko izan ditzakeen beharrak asetzea eta segurtasuna komunikatzea. Desabantaila: arreta gehiegi erakar dezake alor horretara, eta, horrela, emozioak anplifika ditzake, edota beren erritmo naturaletik urrundu ditzake.
- **Estrategia tradizionala.** Aurrez zehaztutako berehalako erantzun-sistemetan oinarritutakoa da. Batzuetan, ez diote galdera bati ere erantzuten, eta gizartean daudden usteetan, sinesmenetan edo erlijioan oinarritzen dira. Abantaila: une horretan berehalako jakin-mina “asetzea” lortzen da, eta helduarentzat “erabilgarriak” diren argudioak eskaintzen dira. Desabantaila: desoreka emozional

zirkunstantzialari “adabakiak” jartzen dizkio, balio arbitrarioa eta partziala duten ebazpenekin.

- **Estrategia didaktikoa edo hezitzailea.** Helduarengan zentratuta ez dagoen bakarra da. Planifikatutako prestakuntza-proposamen pertsonalak liriateke. Abantailak: elkarrekin sortutako ezagutzatik, sentiberatasunetik eta haurraren ganako errespetutik antolatzen dira, eta bizitzaren eta heriotzaren ulermen handiagoa eta kontzientziaren konplexutasun handiagoa lortzen dute. Desabantaila erlatiboa: heldu bat behar da hori aurrera eramanez ahal izateko, eta helduak beharrezkoak izango ditu umiltasun-dosi bat, sentiberatasuna, autoprestakuntza eta heldutasun pertsonala. Gurasoen eta hezitzaileen arteko koordinazioa eskatzen du, eta hori ez da beti posible izaten.

Beraz, galera eta dolua aurkeztu eta irakasleen ohiko estrategiak aletu ondoren, hel diezaigun hasierako galderari: zer egin dezakegu irakasleok haurrari doluan laguntzeko?

Hasteko, geure doluak landu

Haurrak heldua behar du dolua egiteko; hau da, haurrek ezin dute ez dolua egin eta ez egiten ikasi, heldu baten laguntzaz ez bada. Zaila izan daiteke doluan dagoen haur baten minera hurbiltzea; gainera, gure dolu propioak interpelatuko ditu, eta gure baitan bizi izan ditugun absentziak, agurrak, aldaketak islatuko dira hor. Galera horiei lotutako emozio guztiak ager daitezke berriro.

Gauzak horrela, haurraren doluaren eta atsekabearen aurrean, horiek saihestu nahian erantzun dezakegu (garrantzia kenduz, ez ikusiarena eginez, gaia aldatuz...). Baina haurrak dolua aurrera eramatea oztopa dezake horrelako jarrerak, eta hurrengo doluetarako baliabide aproposik gabe geratuko da. Beraz, garrantzitsua da haurrari dolua egiteko baimena, auke-ra eta espazioa eskaintzea.

Irakasleak ondo ezagutu behar du bere burua, ezagutza horixe izango baita hezkuntza-prozesuaren tresnarik garrantzitsuenak, bi arrazoirengatik:

lehenengo, ikasleek identifikazioz jasoko dutelako ikaskuntzaren parte handi bat, eta, beraz, irakaslea izango delako haien eredia. Eta, bigarrenik, guk ordurako ibilia dugun bidearen punturaino soilik lagun diezaiokegularako beste norbaiti.

Izan ere, doluaren bidea egin badugu, atsekabea eta bestelako emozioak beldurtu gabe ikus ditzakegu, badakigularako prozesuaren parte bat besterik ez direla, eta, horren ondoren, sentimendu baketsuagoak agertuko direla. Ezagun egingo zaigu, gainera, bide hori egitetik lortzen den nolabaiteko aberastasun pertsonala ere.

Jarraitzeko, planifikatutako prestakuntza proposamen pertsonaletan oinarritutako esku-hartzea eskaini

Horretarako, irakasleak edo eskolak berak aurretik defini ditzake galera gertatu ondoren edota galera gertatu baino lehen abian jarriko diren beharrezko hainbat pauso, protokolo batean. Hor, komeni da kontuan hartzea planifikatu egin behar direla bai banakako esku-hartzea (galera izan duen haurraren eta haren familiarekin), eta bai taldeko esku-hartzea (gelako ikasle taldearekin, eskolako komunitatearekin...).

Planifikazioak beti sormena piztea eskatzen du, eta, horretan pentsatzen hasteko, askotariko jarduerak gara daitezke.

Esku-hartze aringarriari begira (galera gertatu ondoren), honako jarduera hauek gauzatu daitezke gelan: ipuin-kontakteta, jolas sinbolikoa, doluan dagoen haurraren elkarrizketak izatea, agurrean laguntzeko “erritualak” egitea (banakakoak zein taldekoak), emozioak adierazten laguntzeko jarduerak abiatzea, familiarekin koordinazio-bilerak egitea, irakaslearen burua zaintzeko jarduerak abian jartzea eta abar.

Bestalde, esku-hartze prebentiboari begira (galera gertatu aurretik), honako jarduera hauek gara daitezke:

- Ideia-jasa, askotariko galeren inguruan dituzten ezagutzak jasotzeko; horietatik abiatuta haurtemandako ikaskuntza beharrak defini daitezke, eta horiek lantzeko aproposak diren jarduerak

Haurrak heldua behar du dolua egiteko, hau da, haurrek ezin dute ez dolua egin eta ez egiten ikasi heldu baten laguntzaz ez bada. Zaila izan daiteke doluan dagoen haur bat zaintzea, helduon galerei lotutako emozio guztiak ager daitezkeelako berriro.

programatu daitezke.

- Aldaketaren, galeren, heriotzaren, atsekabearen edo porrotaren gaiak zuzenean edo zeharka lantzeko egokiak diren jarduerak proposa daitezke, hala nola ikus-entzunezkoak, margolan edo irudiak, esaera zaharrak, ipuinak, poemak, kantak edo askotariko testu motak (metodologia egokitu beharko da adinaren arabera, noski); munduan zehar hainbat herrialdetan dolua egiteko dituzten moduak eta ohiturak ere azter daitezke; edota eskolako baratzea egin daiteke, bizitzaren eta heriotzaren zikloak ikasteko.
- Doluaren inguruko prestakuntza-saioak egin daitezke...

Bukatzeko

Kontuan hartu behar dugu galera, heriotza, sufrimendua eta porrota ukatu egiten direla gaur egungo gizartean. Nola egin dezakegu pedagogia bat garapene osoari begira, gai horiek guztiak bizitzaren parte diren heinean barnean hartuta? Esaten da hitzetan jartzen ez dena ez dela existitzen. Beraz, gai horiek tabu bihurtu nahi ez baditugu, jorratu egin beharko ditugu gure eskoletan. Gainera, batetik, galtzearen, huts egitearen, sufritzearen eta porrot egitearen esperientziak eta, bestetik, hilgarria izatearen kontzientziak, ikuspegi filosofiko batetik begiratuta, bizitza bera definitzen lagundu diezagukete, eta zentzua eman diezaiekete, ongizatea sufrimendurik gabe ezin baita bere osotasunean ulertu. Aldous Huxleyk *Bai mundu berria* lan ezagunean zioen moduan.



DOKUMENTALA

Arberoa Ikastola

Donamantiriko ikastola duela 8 urte sortu zen. Hastapenetatik, **Komunikazio Ez Bortitza** izan da harremanetzeko ildo nagusia. Jokatzeko era horrek, errespetuzko pedagogia, ikasle bakoitzaren erritmoa errespetatzen duena ekarri du berarekin. Beraz, ildo pedagogikoa ere, horren arabera garatzen ari dira.

Hori guztia, DVDan


jaso da.

47 minutu irauten
duen DVDa
10 eurotan salgai.



Eskaerak
info@arberoaikastola.org
www.hikhasi.eus

ARGITALPENAK




ARRAROA

Ainara Azpiazu / Paula Estévez

PAMIELA

“Arraroea egiten zait lehenengo pisuko bizilagunaren leihoan peluka hori bat zintzilik ikustea beti”. Album Ilustratuen XI. Etxepare saria irabazi duen lan honetan testuaren bidez egoerak aurkeztu ahala, irudien bidez egoera horiek bizia hartzen dute. Lan honek estereotipoak alboratzeko proposamen umoretsua eskaintzen du.




ATRAPA EGUNA

Nerea Arrien / Estibalitz Jalón

EREIN

Tabletean sentitzen da gustura Manex. Baina bizitza xukatzen dion tramankulu hori itzali egin zaio bat-batean. Zer egin handik aurrera? Nola bizi, aita eta ama ere mugikorrari begira bizi direnean? Orduantxe esaten dio aitonak ahazteko traste zahar hori eta “atrapatzeko eguna”. Horixe izango du aurrerantzean ikasbide.



SORGINA KIRRIK KARRAS

TXALAPARTA

Goiz batez katua esnatu eta ibiltzen hasten denean bere ohiko txin-txina ateratzen ez duela konturatuko da. Hala, bada, sardinarik gabe geratzearen beldur, txintzarriaren bila abiatuko da katu maitagarri eta bihurru hau. *TXO!* bildumako ipuin honek bilaketa dibertigarri horretan jazotako abenturak kontatzen ditu.



ESKULARRU BELTZAK

Jasone Osoro / J. “Josevisky”

ELKAR

Beire ingelesa ikasteko udaleku batera bidali dute gurasoek. Bere institutuan gelako liderra den arren, udalekuan inork ez du aintzat hartzen, eta Baba izeneko mutil misterioitsu batengan aurkituko du babes, boxeoa ikasteaz gainera. Etxera itzulita, bere betiko Sua lagun-taldea prest dago, berriz ere, institutuko izarrak izan eta egurra emateko.




NIRE PIXONTZIA

Anita Bijsterbosch

TTARTTALO

Zerbait erori da zerutik zilipurdika. “Txapel bat!”, pentsatu du txakurrak. Gainerako animaliek ere igarkizuna asmatu nahi dute. Ohe bat? Txalupa bat? Loreontzi bat? Zer izango ote da? Egiatan, ordea, untxiak bakarrik daki benetan zer den, berea baino ez da eta! Ipuin dibertigarri honetako animaliek ez dakite oso ondo zertarako balio duen pixontzi batek.



IPUINAK NAHASTEN

Alessandro Sanna

PAMIELA-KALANDRAKA

Aitona irakurtzen ari den egunkaria bazter utzi, eta ipuin bat kontatzen hasi zaio bilobari. Ipuina ezin klasikoagoa izanik ere, zail gertatzen zaio kontatzea. Gaizki daki? Inola ere ez. Aitonak zera nahi du: bilobak berak kontatzea, berak nahita egiten dituen akatsak zuzenduz. Zeren, hain zuzen ere, ipuinak nahasiz lortuko du aitona hanka-sartzeak adierazpide aberats bihurtzea.

PROPOSAMENA

‘Blogetan.eus’

Euskarazko blog guztiak bildu dituzte *blogetan.eus* atarian

Azkue Fundazioaren webgunea berritu dute, euskal blogarien eta blogen irakurleen erreferentzia gune izateko asmoarekin. Zernahiri buruzko iritziak eta informazioa biltzen ditu atariak, baliagarri izan daitezkeenak ikasle eta irakasleentzat.



Aukeraz beteta

Zure bloga sarean gehitu
Blogari berriak ezagutu
Atsegin dituzun blogak jarraitu

Euskarazko blogak klik batean

AZKUE
FUNDATZIOA

Nork bere interesekoa duen horri buruz idazteko txokoak dira blogak. Musikaz, teknologiaz, literaturaz, gizarteaz, matematikaz, naturaz, politikaz antzerkiak, autoez... zernahiri buruzko blogak daude sarean, baita euskaraz ere. Bloga, alde batetik, erronka da idazlearentzat, baina ahalduentzako tresna ere bada. Halaxe adierazi izan du Gorka Julio blogariak: “Beti esan

izan dut blog bat sortzea ahalduentzako tresna bat dela. Bakoitzak besteen aurrean zerbait esateko, asko irakurri behar du, pentsamenduak antolatu behar ditu, eta forma eman behar dio ideia bati. Horren ondoren, iritziak jaso behar ditu, edo ondorioak. Prozesu horretan, ekarpen bat egiten diogu, lehenik, geure buruari, baina baita jendarteari ere”. Era berean, irakurlearentzat, bloga bere arloan

sakontzeko eta aldi berean interesgune berrietara zabaltzeko leiho bat da.

Blogetan.eus webgunea berritu egin dute, euskal blogarien eta blogen irakurleen erreferentzia gune izateko asmoz, eta, orain, euskaraz sortzen diren blog guztiak biltzen ditu atariak, ordena kronologikoan eta kategoriatan sailkatuta; horrez gain, pertsonalizatzeko aukera eskaintzen du. Euskarazko edozein blogetan




argitaratzen den edukia *blogetan.eus* webgunearen azalean agertzen da automatikoki. Azkue Fundazioaren proiektua da, eta lau ezaugarri nagusi ditu atariak: euskal blogarien bilduma izatea, pertsonalizatutako edukiak eskaintzea, blogarien datu-basea osatzea, eta *Blogetan!* lehiaketari tarte bat ematea.

Urte asko igaro dira, blogak irakas-kuntzan sartu zirenetik. Askotan, ikasleek euren edukiak sortzeko leihogisa erabili izan dituzte; baina ezin uka daiteke gune paregabeak direla blogak, hainbat irakasgairi lotutako informazioa eta edukiak bilatzeko ere. Haur eta gaztetxoaren interesekoak izan daitezkeen euskarazko edukiak inon egongo badira, *blogetan.eus* atarian egongo dira. Izan ere, irakasle eta ikasleentzat arlo eta gai ugarietako informazioa eta iritziak bilatzeko gunea da *blogetan.eus* berritua. Azkue Fundazioko zuzendari Iurdana Akasusoren arabera, erabiltzaileek aukera izango dute beren nahien eta interesen arabera jasotzen duten edukia antolatzeko, gune pribatu baten bidez. «Blogak kategoriatan sailkatuta daude, eta erabiltzaileak aukeraketa egin dezake, hainbat iragazkiren bidez».

Blogetan.eus ataria gune dinamiko eta parte-hartzailea da, Akasusoren

arabera. «Webgunean zerrendatuta dauden blogak edo oraindik *errolatu* gabe daudenak proposa ditzakete erabiltzaileek, modu horretan euskarazko blogen bilduma osatzeko eta aberasteko». Beste sare sozialetan bezala, datu-basean dauden blogarrietatik nahi dituen jarrai diezaieke erabiltzaileak, bere gustuko blogetako edukiak soilik jasotzeko. Horrez gain, automatikoki bilduko dira atariaren azalean euskarazko blogetako eduki berriak. Blogak kategoriatan sailkatu dira: teknologia, kultura, zientzia, politika, aisia eta gizartea; eta hainbat azpikategoriatan banatua dago kategoria bakoitza. Hala ere, kategoriak eta azpikategoriak gehitzeko aukera ematen du programak.

Azkue Fundazioaren proiektu berriak erdigunean jartzen du euskarazko blogintza, eta tresna lagungarria jartzen die eskura irakurleei. Akasusoren arabera, blogarientzat zein irakurleentzat izan daiteke baliagarria ataria. «Sortzaileei beren blogen ikusgarritasuna eta irismena hobetzen lagunduko die, irakurleengana iristeko beste leihogisa bat zabaltzen duelako. Irakurleei dagokionez, euskarazko blogintzak eskaini diezazkiekeen oparotasuna eta aniztasuna haien esku jarri nahi ditugu».



Blogetan.eus

Kudeatzailea

Azkue Fundazioa.

Kategoriak

Teknologia, kultura, zientzia, politika, aisia eta gizartea. Kategoria bakoitza hainbat azpikategoriatan dago sailkatuta.

Webgunearen izena

www.blogetan.eus

Blogetan! Blog izarren bila lehiaketak atal berezia du webgunean. Aurreko edizioetako informazioa eta hurrengo edizioaren berri irakurtzeko aukera ematen du atal honek.

ATZEKO ATETIK



FAUNA

IZARO ANDRES ABESLARIA

Ordu asko pasatzen ditugu eskolan. Bakoitzak, berean. Bakoitzarenak duen forman, antolakuntzan, metodoan, izenean, izanean. Bakoitzarenak dituen irakasleekin, ikasleekin, inguruarekin, janariarekin. Baina guztiok pasatzen ditugu ordu asko bertan.

Bertan sortzen da urte luzez gure habitata izango den oihana, bere fauna eta florarekin. Floraren parte: ateak, komunak, aulkiak, mahaiak, liburuak, eskailerak, argiak, gortinak, boligrafoak, etab. Faunaren parte: gu. Eta gurean, denetarik, leku guztietan bezala: indartsuak, azkarrak, alferrak, ederrak, beldurtiak, lodiak, argalak, itsusiak, barre-garriak, bihurriak, zintzoak, betaurrekoekin, gabe, gurpildun aulkian, oinez, osasuntsuak, gaixorik, bertan jaioak, atzerrian jaioak, euskaraz dakitenak, ez dakitenak, gurasodunak, guraso gabeak... Dena. Zoritxarrez, eskola batzuei ez zaie gehiegi gustatzen aniztasun hori eta nahiago izaten dute adjektibo jakin batzuk

dituzten ikasleek osatutako fauna —akaso, erosoago— bat izan. Hala ere, ez naiz gaur eskola horietaz hitz egitera etorri. Faunari buruz hitz egin nahi dut gaur.

Fauna horren parte diren zenbaitentzat eskola infernua da. Eta aurrez esan dugun bezala, ordu asko pasatzen ditugu eskolan. Fauna horren parte diren zenbaitentzat eskola infernu luzea da. Modu batera edo bestera, beste ikaskide batzuen harrapakinak bihurtu dira, ehizatuak, beldurtuak, minuak, zaurituak, baztertuak. Horientzako hil ala biziko esperientzia da egun bakoitza. Horietatik batzuk faunaz aldatzen dira bizitza hobe baten bila-edo. Eta horietako batzuk, nahi ez genukeen arren, hil egiten dira bidean, eta ez metaforikoki. Gure eskoletan.

Ez dut uste gure eskoletako faunan kate trofikorik egon beharko luketik, baina badago. Nondik hasi kate hau apurtzen? Akaso, harrapakinak eskolaz eskola, faunaz fauna mugitzen ibili beharrean, harrapakariak

mugitu beharko genituzke. Akaso, harrapakariekin egin beharko genuke lan, eta horien gurasoekin. Akaso, fauna gidatzen duten horiek ere egin beharko lukete zerbait gehiago: jakin beharko lukete nola egin, erakutsi beharko zaie horretarako dakitena baino gehiago. Akaso, beste ikaskideok babestu egin beharko genituzke harrapakinak, setatsu. Akaso, irakatsi beharko diegu gure gazteei ehizatzeak min egiten duela, hil egiten duela. Akaso, irakatsi beharko diegu gure buruei ehizatzeak min egiten duela, hil egiten duela. Akaso, gehiago landu eskolak eremu seguru bihurtzeko sistemak.

Akaso, gure ikaskideak errespetatzen ikastea garrantzitsuagoa da biderkatzen ikastea baino. Akaso, gure ikaskideak errespetatzen ez badakigu, ezingo dugu inoiz gehitzen ikasi. Agian, ez gara benetan arreta jartzen ari, eta ari zaizkigu harrapakinaren bizitzak galtzen atzeko atetik. Kenketak besterik ez.

Gozatu *elhuyar*

aldizkari berritua

Zientzia eta teknologiaren arloan gertatzen den guztia, eskura:
gaurkotasuna, iritzia, analisisa, istorioak, irudiak, hemengo ikerketa...

Urtean 16 euroren truke



Hiru hilez behin jasoko duzu etxean
eta noiznahi eduki gehiago izango duzu webgunean

Harpidetu zaitetz edo oparitu ezazu harpidetza, hemen:
<http://aldizkaria.elhuyar.eus/harpidetza>

Pirritx, Porrotx, Marimotots



disko-liburua



disko-liburua



Joan Mari Irigoienen olerkiak Xabier Zabalaren musika
Jose Luis Zumetaren ilustrazioak

Karlos Osinaga eta Joseba Ponceren
musika eta ilustrazioak

BOROBILEAN bilduma: Plaza ipuina eta kartoizko ipuinak
Testua: Uxue Alberdi Marrazkiak: Julian Toquero



DVD bikoitza



* TIPI-TAPA, KORRIKA!
Ikuskizuna



* Pupu eta Lore
HAIZEAREN HERRIRA
* AITONA-AMONEN EGUNA
erreportajea

Puzzleak



30. urteurrena ospatzeko, eskaintza bereziak eta opariak
zuzeneko saioetan eta webgunean

www.katxiporreta.eus **Katxiporreta**

www.facebook.com/pirritx.porrotx.eta.marimotots

Ovia etorbidea, 10
Brunet Eraikina 5, E-4
20160 LASARTE-ORJA
Tel.: 943 368 404